Trikitixa Eguna
Ibarreko 130 trikitilari batu ziren
GEUREAN, 8

Bergarak agur esan dio preferente mailari
Gainerako taldeen kasuan Aloñak bakarrik irabazi du asteburuan
KIROLA, 18

Magia Mostra
Anthoni Blake-ek ireki zuen
KULTURA, 24-25

ASTELEHENEKO
Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko maiatzaren 16a • 2. urtea • 57. zenbakia • 0,90 euro

Koadrilen Eguna ospatuko dute gaur bergararrek herriko jaiekin jarraituz

Herri bazkaria, kutsaduraren kontrako baltsa jaitsiera eta mariatxiak egongo dira

ASTEBURUA LASAI
Ez da jende gehiegi ibili asteburuan, baina giroa polita izan da. Eguraldia ere portatu egin da

BARRAKAK
Barrakek prezio berezia izango dute gaur. Euro baten truke bi bira emateko aukera egongo da

BIHAR AZKEN EGUNA
Bihar bukatuko dira Pazkoak. Umeen Eguna izango da eta eurendako hainbat ekitaldi egongo dira

Oraindik bi egun geratzen zaizkie bergararrei jaietaz gozatzeko; gaur eta bihar. Asteburuaren kasuan, ez da jendetzarik ibili baina giroa aparta izan da: txoznetara jende ugari hurbildu da eta dantza latindarren lehen sariketan ere herritar asko batu zen. 2-7

AINTZANE AGIRRE

Barre ugari eragin zuen zapatuan McKensy's Clan Band taldeak; baita aurpegiren bat edo beste gorritu ere.

Lehergailuak eztanda egin du Bergarako lantegi baten

Kalte handiak eragin ditu Felix Gabilondo enpresan 9

LARRAITZ ZEBERIO

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04

GUREAN

• Herritar ugari batu zen Antzuolan, San Isidro ferian | 10
• Jon Agirre presoak 24 urte bete ditu asteon kartzelan; Aramaion ekitaldia egin diote | 10

Eskoriatzako dendariak pozik Loreen Egunak izandako erantzunarekin | 9

PAZKOAK BERGARAN

AINTZANE AGIRRE

Gaur, astelehena, euro baten truke bi buelta emateko aukera izango dute umeek 15:00ak bitartean.

PAZKOAK | EZ DA JENDE GEHIEGIRIK IBILI, BAINA GIROA POLITA IZAN DA

Asteburua pasatu da, baina oraindik ere bi egun dituzte bergararrek jaiez gozatzeko

Gaur, astelehena, Koadrilen Eguna da eta besteak beste, herri bazkaria, koadrilen arteko jokoak, Miss eta Mister Jator lehiaketa eta Deba errekan baltsa jaitsiera egongo dira

M.B.

Hiru gutxi ez, eta oraindik beste bi egun geratzen zaizkie bergararrei jaiez gozatzeko. Gaur, astelehena, egun berezia izango da askorendako, Koadrilen Eguna da-eta. Horren harira, gainera, hainbat ekitaldi antolatu dituzte giroa pizteko asmoz.

Goiz hasiko dituzte ekitaldiak. Koadrilak San Martin plazan aurkeztu eta jokoak egingo dituzte. Besteak beste, asto karreran eta txerri harrapaketan arituko dira.

Herri Mugimenduak egitarau zabala antolatu du aurten ere, eta herritar ugari erakartzen dituen ekitaldi bat berreskuratu dute, gainera: baltsa jaitsiera. 18:00etan izango da. Deba errekaren zatitxo bat norberak egindako baltsan jaistea da ekitaldiaren oinarria eta helburua, berriz, kutsaduraren aurka egitea.

JENDE GEHIEGIRIK EZ

Igaro berri dugun asteburuari dagokionez, eguraldia lagun izan dute bergararrek eta jende pilarik ez. Herritar askok inpresio hori izan du eta baita udaltzain eta tabernariek ere. Kale garbitzaileek ere zabor kopuruan nabaritu dute duela bost bat urtetik hona jende kopuruak behera egin duela. Euretako batek esan digunez, "asteburuan 10. 340 zabor kilo jaso ditugu. Duela bost bat urte 7.000 gehiago ere jasotzen genituen".

Asteburua lasai igaro da; ez da jende gehiegi ibili eta ekitaldiak aurreikusi moduan joan dira

Asteburuko ekitaldien kasuan, pena izan zen egubakoitz gauean euri pixka bat egin izana, horrek Pixpila Disko Busaren festa giroa ilundu zuelako. Ikusmina eragin zuen ekitaldietako bat, lehenengoz egin den dantza latindarren lehiaketa izan zen. Jende ugari batu zen saioa ikustera.

Egitaraua

ASTELEHENA

- **08:00**: Sokamuturra San Martin plazan. Ondoren, hamarretakoa.
- **10:30**: Plater tiroketa, Gorlako Irubide plazan.
- **11:30**: Mariachi Garibaldi taldearen kalejira.
- **12:00**: Koadrilen aurkezpena eta jokoen hasiera, San Martin plazan.
- **12:30**: Kontzertu mexikarra Espoloian, Mariachi Garibaldi taldearekin.
- **14:30**: Herri bazkaria. Bazkal ostean, euskal kantuen saioa.
- **17:00**: Jokoak, berriz.
- **18:00**: Kutsaduraren kontrako baltsa jaitsiera.
- **18:30**: Pazkoak 2005 Miss eta MIster Jator Lehiaketa.
- **19:00**: Koadrila irabazleari sari banaketa.
- **19:00**: Bergara-Hiria pilota txapelketako finalak.
- **19:30**: Kalejira Xapre eta Zaharra eta Josu eta Jokin trikitilariekin.
- **22:30**: Kontzertua Bideberrin: Sagarroi, Holy Sheep, Aby Kem eta Skunk.
- **23:00**: Erromeria San Martin plazan Tapia eta Leturiarekin eta Otamendi dantzariarekin.
- **23:00**: Camp dantzaldia Espoloian, Nueva Alaska taldearekin.
- **03:00**: Dj Bull eta jokoak, txoznetan.

MARTITZENA

- **08:00**: Sokamuturra.
- **08:00**: Txorizo egosia, txoznetan.
- **10:00**: Dultzaineroekin kalejira.
- **11:00-14:00**: Mendekoste jaietako lehiaketara aurkeztutako kartelen erakusketa.
- **11:30-13:30**: Herri trenaren txango turistikoa.
- **11:30-13:30**: Haurrendako jolas parkea Ipintza IIn.
- **12:30**: Herri-kirol erakustaldia, San Martin plazan.
- **16:30**: Sakarekin umeendako jolasak, San Martin plazan.
- **17:00**: Pilota partiduak, Udal pilotalekuan: Capellan-Nalda III.a/Del Rey-Eulate. Titin III.-a Barriola/Xala-Lasa III.a. Etxaniz-Arizmendi/Chafee-Auxkin.
- **17:00-20:00**: Herri trena.
- **20:15**: Gaztetxoendako kontzertua Betizu taldearekin, San Martin plazan.
- **21:00**: Kontzertua Bideberrin: Txinaski, Midle Finger eta Azkaiter pelox.
- **21:30-24:00**: Euskal karaoke eta DJ festa, San Martin plazan.
- **24:00**: Bitorianatxoren igoera eta jaien amaiera.

PAZKOAK BERGARAN

Tarteka euria egin bazuen ere, jende nahikotxo batu zen plazan, egubakoitzean, Bitorianatxori harrera egiteko.



Dantza txapeletan hamalau bikotek jardun zuten domekan.

Felixek lagundu zion Bitorianatxori udaletxetik jaisten, egubakoitzean.

Bitorianatxo pozik jaitsi zen egubakoitzean.

Herritarrak albokari ere aritu ziren.

Sharon Stoner oñatiarrek zabaldu zuten egubakoitzean Bideberriko rock kontzertuen gaua.

Dantza latindarren lehiaketako lehenengo saria Donostiara joan zen

Zapatu gauean jende ugari batu zen plazan Dantza Latindarren I. Lehiaketak eragindako ikusmina zela eta. 15 bikotek hartu zuten parte (ibarreko bat), eta hiru kanporaketa bidez erabaki ziren lehenengo hiru sarituak. Bikoteek batxata, merengea, txa-txa-txa eta salsa dantzatu behar izan zituzten. Bikote irabazlea Donostiako Imanol Arruabarrena eta Edurne Ferreira izan ziren.

Giro ona egon da, baina ezin esan jende gehiegi ibili denik herrian asteburuan

“Ez da jende asko ibili”. Horixe da gehienen ahotan ibili den esaldia. Urtetik urtera behera egiten du jende kopuruak. Zapatuan, egubakoitzean baino jende gehiago ibili bazen ere, dagoeneko ez da duela urte batzuetako jendetzarik sumatzen, ez tabernetan eta ezta kaleetan ere. Tabernariek ere halaxe esan dute, giroa bai, baina jende askorik ez dela egon. Udaltzainek ere ibilgailu andanarik ez dela egon azaldu dute.

Kale garbitzaileek 10.340 kilo zabor jaso dute egubakoitzetik domekara

Jaietan zabor gehiago egiten dela agerikoa da. Kale bazterrak begiratzea besterik ez dago. Kale garbitzaileek emandako datuen arabera, hamar tonatik gora zabor jaso dituzte asteburuan. Iaz baino gutxiago dela esan dute, eta azkeneko urteetan beherakada nabarmena igarri dutela. Baina normala ere badela diote, gero eta jende gutxiago etortzen delako. 16-17 mila kilo jasotzen zituzteneko denborak ere gogoan dituzte.

PAZKOAK BERGARAN

Bonba japoniarrek hara eta hona ibili zituzten umeak goxokien atzetik.

Ikusten zutenek harridura aurpegia jartzen zuten; janzkerarengatik, bereziki.



Zapatuan ere kontzertua izan zen txosnen gunean.

Artatse elkarteko Carlos Olabarria (ezkerrean) eta Mikel Gomez (eskuman) izan ziren bakailao lehiaketako irabazleak.

Beart elkarteak antolatutako plastika sariketan 48 umek hartu zuten parte zapatu goizean.

Herrian artista harrobi itzela dagoela argi laga du umeendako plastika sariketak

Zapatu goizean Haur eta Gazteen Plastika Sariketa izan zen Bergarako artisten elkarteak, Beart-ek, antolatuta. 48 neska-mutikok hartu zuten parte, adinaren araberako hiru mailatan banatuta, eta horietatik 30ek –maila bakoitzeko 10ek– jaso zuten saria. Askotariko lanak egin zituzten: marrazkiak, plastilinazko irudiak... Benetan maila polita egon zela esan dute antolatzaileek.

Hamabi elkarte lehian, eta Artatsek eraman zuen sari handia bakailao lehiaketan

Elkarteen Arteko XIII. Sukaldaritza lehiaketa izan zen zapatuan. 12 elkartek hartu zuten parte eta bakailaoa prestatu behar izan zuten pil-pil erara. Guztiak mimo handiarekin aritu ziren, baina, Artatse elkarteko Mikel Gomezek eta Carlos Olabarriak jarri zuten mimo gehien eta eurak izan ziren irabazleak. Bigarren, Jaolatzako Mertxe Gaztelu eta Jose Manuel Markiegi izan ziren, eta hirugarren, Oillagorrako Zigor Ruiz de Egino eta Felix Eguren.

Gaur eta etzi, eguaztena, baten prezioan bi buelta eman ahal izango dira barraketan

Udalak jakitera eman duenez, gaur, astelehena, eta etzi eguaztena, euro baten truke bi buelta eman ahal izango dira barraketan. Gaur, 15:00ak arte iraungo du aukera horrek eta eguaztenean, berriz, egun osoan (ez martitzenean, aurrez iragarri zuten bezala). Barrakei dagokienez, azkeneko urteetan bezala, Poligonoan jarri dituzte, hilerri ondoko aparkalekuan, eta guztira hamabosten bat daude.

PAZKOAK BERGARAN

Preso eta errefuxiatuen aldeko bazkaria Munobe plazan egin zuten. Trikiti doinuak eta bertsolariak ere izan zituzten.

Manifestazioa ere izan zen preso eta iheslariak oroituz.

Jende asko ez zen batu, baina sokamuturra adin guztietako jendearen gustuko dela garbi dago.

Jende ugari hurbildu zen dantza latindarren lehiaketa ikustera, zapatu gauean, San Martin plazara.



Honezkero lagun onak egin dira konpartsako erraldoiak eta musikariak. Talde argazkia ateratzea ere nahi izan zuten.

Garazi Lekuona eta Unai Santos lezoarrak garaile dantza solteko txapelketan

Atzo Euskadiko Bikote Gazteen 28. Dantza Solteko Txapelketa jokatu zuten San Martin plazan. 14 bikotek jardun zuten lehian. Irabazleak Garazi Lekuona eta Unai Santos lezoarrak izan ziren. Bigarren, Iraitz Olariaga eta Irantzu Larrañaga, Azkotia eta Azpeitiakoak, hurrenez hurren, eta hirugarren, Aritz Arrillaga eta Amaia Bolinaga bergararrak sailkatu ziren.

Bidelan taldeko Josu Agirre irabazle 60. Mendekoste txirrindularitza proban

Domeka goizean jokatu zen 23 urtetik beherakoendako 60. Mendekoste Txirindularitza saria. 60 txirrindularik hartu zuten parte (26k bukatu zuten) eta lehenengoa helmugaratzen Josu Agirre izan zen, 03:06:06 denborarekin. Bigarren, denbora berarekin, Iban Velasco helmugaratu zen eta hirugarrena Jon Azkotia izan zen, 27 segundora. Hirurak Beasaingo Bidelan taldekoak dira.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELKARTEAREN

BATZAR OROKORRA

DEIALDIA

- Honen bidez, 2005eko maiatzaren 20an egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako dei egiten dut.
- Batzarra Arrasateko Monterron jauregiko aretoan izango da, 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.

GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2004ko maiatzaren 28ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2004ko kudeaketa txostena azaltzea.
4. Zaintza batzordeko kideen txostena irakurtzea.
5. 2004ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea
6. 2005eko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
7. Borondatezko ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Errektore Kontseiluko kide berriak onartzea.
9. Errektore Kontseilu berria onartzea eta lehendakari, lehendakariorde eta idazkari karguak aukeratzea estatutu sozialen 40.artikuluak dioena jarraituz.
10. Kooperatibako Kontseilu sozialaren aukeraketa.
11. Estatutuetako 40. artikuluaren aldaketa, bazkide laguntzaileek Errektore Kontseilurako hautatzen dituzten ordezkarien epealdia aldatzen duena.
12. Galderak eta eskaerak.

Oharrak: Errektore Kontseiluko kide berriak bi izango dira lan bazkideen aldetik eta hiru bazkide laguntzaileen aldetik. Lehenengoen kasuan aurrekoek aukeratuta izan zireneko epea amaitu dutelako eta bigarrenean Udal ordezkarien kontseiluak onartutako akordioak horrela eskatzen duelako.

Proposaturiko aldaketen testua eta proposamenaren arrazoiak biltzen dituen txostena Goienako egoitzan duzue, bertan aztertu nahi izanez gero. Jakin ezazue Kooperatibaren Legearen 74. artikuluaren arabera txosten hau etxean dohainik jasotzeko eskubidea duzuela. E-postaz bidaliko dizuegu. Hala ere, inork etxean jaso nahi izanez gero, dei dezala 943 79 21 00 telefono zenbakira eta egin eskaera Iratxeri.

Errektore Kontseiluko lehendakaria
Arrasaten, 2005eko maiatzaren 5ean.

PAZKOAK BERGARAN

Bandak sei pieza egin zituen domeka eguerdian Espoloian egindako emanaldian.

Konpartsako erraldoiak herrian barrena ibili ziren zapatuan euren dantzekin kaleak alaitzen.

Barrakak jende askorendako topaleku izaten dira; ume txikiak dituztenendako, batik bat.

Josu Agirre beasaindarrak irabazi zuen domeka goizeko ziklismo proba.

Ausartenek tatuajea ere egiteko aprobetxatu dituzte jaiak.

ASPEPELOTA
Goi mailako pilota ikuskizuna

Capellan - Nalda III / Del Rey - Eulate

•

Titin III.-a - Barriola / Xala - Lasa III.-a

•

Etxaniz - Arizmendi / Cafee - Auxkin

aspepelota.com

- **Eguna:** martitzena, 17a.
- **Ordua:** 17.00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.

PAZKOAK BERGARAN

• ZER DA JAIETATIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA?

OLATZ, ITSASO, MAITE, MAITE, IDOIA, AINHOA, EUKENE, MIREN ETA IÑIGO | BERGARA

Izugarri gustatzen zaizkie jaiak, bereziki barrakak, "baina oso garestiak dira; buelta bakoitza 1,5 euro. Baina eskolan txartel bana eman ziguten barraketarako eta bakoitzak bira bat doan daukagu", esan digute. Gutxien gustatzen zaiena, batzuei, behintzat, gaueko musika da "ezin dugulako lorik egin gustura".

Horretaz guztiaz gain, zapatuan plazan izan ziren, antzerkia ikusten eta "ez zaigu gehiegi gustatu, ez genuen ondo ikusten. Orain kalean ibiliko gara gauzak ikusten".

EÑAUT, AIDOR, XUBAN ETA EGOITZ | SORALUZE

Zapatu eguerdian iritsi ziren Bergarara. "Munibe plazako bazkarira etorri gara; lagun batek soinua jo behar zuen, eta Egoitzek bertsotan egin". Herri Mugimenduak jaietan giro aparta jarri duela ere gehitu zuten eta egitarau erakargarria dutela.

AINTZANE ETA AINARA | BERGARA

"Barrakak eta kaleko postuak gustatzen zaizkigu gehien. Barraketan asko ibili gara eta txurroak eta koko zatia ere erosi ditugu".

ANTTON ETA BEÑAT | DONOSTIA ETA BERGARA

Egunero egin du festa bikote gazte honek. "Giro ona egon da eta jendea ere ibili da. Zapatuan gehien bat". Antton donostiarra da eta bigarren aldiz etorri da Bergarako jaietara. "Onak dira, baina orain ikastera".

BIBIANA, LUCAS ETA CRISTIAN | BERGARA

Barraketarako bidean topatu dugu hirukote hau. "Gutxi ibili gara jaietan. Bibiana gaixo dabil eta umearekin...". Dantza latindarren lehiaketa ikusi zuten. "Bizpahiru bikote ondo aritu ziren hemengoak izateko".



AUSPOA DANTZAN | ZAPATUAN DEBAGOIENEKO I. TRIKITIXA EGUNA OSPATU ZUTEN

Aretxabaletako trikiti eskolak antolatuko du jaia datorren urtean

Debagoieneko I. Trikitixa Egunak 130 trikitilaritik gora elkartu zituen zapatuan Arrasaten. Jaiak izango du jarraipenik, Aretxabaletak jaso zuen eta lekukoa bazkalostean

LARRAITZ ZEBERIO

Arrasateko plazan burutu ziren Trikitixa Eguneko ekitaldi nagusiak. Bertan batu ziren trikitilari guztiak.

Larraitz Zeberio

Debagoieneko I. Trikitixa Egunari hamaiketakoarekin eman zioten hasiera bailarako trikitilariek.

Debagoieneko trikiti eskola guztiek hartu zuten parte zapatuan Arrasaten antolatutako festan. "Elkar ezagutzeko aukera polita da", esan ziguten elkarrizketatutako trikitilari guztiek. Antolatzaileek, bestalde, beste helburu bat zuten, "jaiari jarraipena ematea". Honela esan zigun Arrasateko trikiti eskolako Unai Iturriotzek.

Zortzi trikiti eskolako 130 bat trikitilari batu ziren azkenean Arrasaten euren soinu txiki eta panderoekin.

Sebero Altuben zuten hitzordua guztiek eta bertan elkartu ziren goizeko 11etan. Arrasateko trikiti eskolakoek prestatuta zituzten pintxo goxoek estimazio handia izan zuten eta hainbat adin zein mailatako trikitilariak bildu ziren bertan. Bapo gosaldu ondoren laster osatu zuten trikitilariek eguneko lehen borobila. Auspoa zabaldu eta berehala entzun genuen eguneko lehen biribilketa.

TRIKI POTEOA

Eguerdi partean Arrasateko alde zaharra trikiti doinuz bete zen. Taldeetan banaturik trikitilariek triki poteoa egin zuten kaleetan barrena.

Ondotik ikasleek jaialdia egin zuten Herriko plazan eta trikiti eskola bakoitzeko soinu-jotzaileek euren gaitasunak eman zituzten ezagutzera. Biribilketak, fandango eta arin-arinak, trikitia eta porrusaldak... denetarik entzuteko aukera izan genuen. Pandero-jotzaileak ez ziren atzean gelditu eta euren trebezia ere erakutsi ziguten panderoa hankaz eta buruz astinduz.

ARETXABALETAK LEKUKOA

Santa Barbarako kanpan egin zuten bazkaria trikitilariek. Guztira 130 bat lagun elkartu ziren eta ez zen dantzarako aukerarik falta izan bazkalostean. Momentu horretan jakin genuen datorren urtean ere trikitiaren eguna egingo dela Debagoienean.

Arrasateko trikiti eskolako Josu Iriak lekukoa hartu eta Aretxabaletako trikiti eskolako ordezkariei luzatu zien. Eskola honek hartu du datorren urtean festa antolatzeko ardura.

Bazkalostean Herriko plazara itzuli ziren trikitilariak. Ene Bada! taldearen dantzaldiarekin eman zioten amaiera Debagoieneko I. Trikitixa Egunari. Festa egun handia askorendako.

Jaia datutan

- **8 TRIKITI ESKOLA** Debagoieneko trikiti eskola guztiak batu ziren Arrasaten. Arrasate, Aramaio, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Elgeta eta Bergarako bi eskolak.
- **130 LAGUN BAZKARIAN** Santa Barbarako kanpan egin zuten bazkaria.
- **350 IKASLE BAILARAN** 10-15 urteotan bultzada handia izan du trikitiak gurean.

• GUSTATU ZAIZU DEBAGOIENEKO I. TRIKITIXA EGUNA?

AINHOA, MAIALEN ETA AINHOA | ARRASATE

Hiruzpalau urte daramatzate trikitia ikasten. "Jaia oso ondo dago gure artean elkar ezagutzeko", esan digute ia batera. Familiartean jotzen dute gehien bat. "Trikitia jotzea nahi izaten dute, baina gutxitan animatzen dira dantzara".

ANDER | DURANGO

Bere akordeoiarekin etorri zen Ander. "Honelako jaiak asko gustatzen zaizkit. Oso giro ona dago".

LEIRE, NEREA, ELENA ETA NAHIA | ARETXABALETA

"Gutxitan antolatzen dira horrelako jaiak", zioen laukote honek. "Festa gustatzen zaigu guri, jendea ezagutzea gehien bat". Bergara eta Elgetako ikasleak, esaterako, ez zituzten ezagutzen. Trikitilari batez galdetuta Kepa Junkera esan ziguten.

GARAZI, MAIALEN ETA EDURNE | ESKORIATZA ETA LEGUTIO

Gatzagako jaietan sarritan jotzen duela esan digu hirukote honek. "Bestela irteera gutxi izaten ditugu urtean zehar. Trikitixa Eguna oso ideia ona da, elkar ezagutzeko aukera ematen digulako eta bide batez trikitia ere zabaltzen dugulako".

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupo taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

MARIJO DEOGRACIAS

Debagoieneko alkateek Arrasaten egin zuten erabakiaren aurkezpena egubakoitz goizean.

Hiltegia enpresa misto bihurtuko dute

Marijo Deogracias

Hiltegiaren inguruan sortutako plataformak egiteko agindu zuen hiltegiaren gaineko azterketak hiru aukera aurreikusten zituen: izaera publikoa izatea, pribatizatzea edo enpresa misto bihurtzea. Eta hain justu azkeneko hauxe izan da Debagoieneko gobernu batzarrak erabaki duena.

Egubakoitzean eman zuten jakitera ibarreko alkateek, Ignacio Lakuntza presidentearen ahotan: "Hiltegiari zabalik eusteko enpresa mistoaren aldeko apustua egitea erabaki dugu: jarduera mantentzearen aldeko apustu garbia egiten duelako eta Mankomunitatearen eta Debagoieneko Udalen interes publikoa adierazten duelako".

Horren ondotik, Lakuntzak "Plataformarekin beharrezko adostasuna lortze aldera, Hiltegi Batzordeko eta Mankomunitateko lehendakariei behar besteko negoziazio-tartea utziko zaie" gaineratu zuen.

PLATAFORMAK BEREA

Eguenean egin zuen batzarra Hiltegia Bizirik plataformak –Mankomunitatearen erabakia ezagutu barik– eta euren proposamenari eustea adostu zuten: zerbitzu publikoari eutsi eta gestioa enpresa eran eramatea.

IGNAZIO LAKUNTZA I MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA

"Prozesu bateratua nahi dugu, sektoreak parte hartzeko"

M.D.

Enpresa mistoaren alde egin du Mankomunitateak; zer esan nahi du horrek?

Sozietate berri bat sortzea Mankomunitatea eta hiltegiaren inguruan sortutako plataformaren artean. Kapitala sartu behar dute alde biek eta zerbitzuari eusteko apustua egin behar dute. Modu honetara, hiltegiak irekita jarraituko du, sektoreak parte hartuko du eta konpromisoa hartzen dugu prozesu bateratua bultzatzeko.

Gestioa Mankomunitatearen eta Plataformaren esku izango litzateke? Jaurlaritzak ez luke parte-hartzerik izango?

Jaurlaritzak bere egunean prozesua bultzarazi zuen, baina kito. Erabakia gurea da.

Udalek diru gehiago jarri beharko dute enpresa misto horretan?

Aukera hori hartu dugu aurrera begira zerbitzuari irtenbidea emateko, baina gestioa ez dute Udalek beregain hartuko; enpresa bat izango da. Hala ere, laguntza behar izanez gero, Udalek, enpresako parte izanik, eman beharko dute laguntza, baina beti ere inplikazioa badagoelako. Kontua ez da eskatzea eskatzeagatik, inplikazioa beharrezkoa da.

Bonba batek eztanda egin zuen domekan Bergarako enpresa baten

Domekan, 03:40ean, egin zuen eztanda leherkariak Felix Gabilondo enpresaren zink biltegian

Asteleheneko Goienkaria

Zink depositoan jarritako leherkari batek egin zuen eztanda Bergarako Felix Gabilondo enpresan domeka goizaldean. Ondorioz, suhiltzaileek adierazi zutenez, 15.000 litro produktu toxiko isuri ziren errepidera eta Deba ibaira. Enpresako zaintzailea eta bi ertzain Debagoieneko ospitalera eraman behar izan zituzten, arnasketa arazoekin. Eguerdirako alta eman zieten hirurei.

ALKATEAK GAITZETSI DU GERTAKARIA

Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak ASTELEHENEKO GOINEKARIAri atzo goizean esan zionez, gaitzetsi egiten du gertakaria; baita Udal gobernuak ere. Bestelako gaitzespen batzuen artean, Confebaskek ere gogor salatu zuen atzo gertatutakoa.

BESTE HIRU LEHERKETA GEHIAGO ERE IZAN ZIREN

Soraluzen, Beasainen eta Elgoibarren ere izan ziren leherketak; guztiak enpresetan eta Herrizaingo sailetik adierazi zutenez, ez zuten aurrez eraso horien berri emateko dei edo abisurik jaso. Lehena Beasaingo Salbatore auzoko enpresan izan zen, 03:00etan; bigarrena 03:40ean, Bergaran; 04:00etan Elgoibarko Lerun industriguneko Bernardo Ezenarro margo enpresan gertatu zen eta ordu berean Soraluzeko Erreka kaleko Industrias Gol lantegian. Leherketa guztiek kalte handiak eragin dituztela adierazi zuten Jaurlaritzatik. Hango iturriek gehitu zutenez, "baliteke leherketak ETAk eragin izana, leherkaria kloratitaz osatuta dagoelako". Dena dela, Ertzaintzak ikerketekin jarraitzen du.

GOIATZ ARANA

Arantzazun egin zuen bere lehenengo agerpena Hitzarmenerako mahaiak.

Hitzarmenerako mahaia aurkeztu zen Arantzazun

Asteleheneko Goienkaria

Orain arte Nazio Eztabaidagune eta Gatazkaren Konponbidea Sustatzeko Batzorde legez ezagutu izan dugu, baina aurrerantzean Hitzarmenerako mahaia izango da. Arantzazun egin zuen bere lehenengo agerpen publikoa, joan zen egubakoitzean. Eragile politiko, sozial eta sindikalak elkartu ziren; izan ere, 6 alderdi politiko, 7 sindikatu eta 31 mugimenduetako ordezkariak batzen ditu Mahaiak.

Hiru ildo jorratuko dituztela adierazi zuten mahaikideek: oinarrizko hitzarmen demokratikoa tresna bezala hartu, eragile politiko guztien proposamenak aintzat hartu eta hasten duen prozesua eragile guztien artean adostu, herritarrek babesteko eta bozkatzeko.

Hortaz, datozen hilabeteetan, bestelako indarrekin hartu-emanetan jartzeko asmoa dutela adierazi zuten.

• ESKORIATZAN LOREAK OPARI BEZEROEN FIDELTASUNA ESKERTZEKO

DENDARIEN EKIMENEZ 3.000 LANDARE JASO DITUZTE DOAN BEZEROEK

Udaberri honetan ikusgarri egongo dira Eskoriatzako balkoi eta leihoak. Herriko dendariek 3.000 txartel banatu zituzten bezeroen artean eta eskoriatzarrek zapatuan aldatu zituzten txartelak landareen truke.

Herriko plazan Usurbilgo Urtinea hazitegiko lagunak lanez gainezka ibili ziren eskari guztiak asetzeko. Alegriak, koleoak, inkonte belarrak, krabelinak, geranioak... denetarik ekarri zuten; baita eskoriatzarrek etxera eraman ere.

Eskoriatzako dendariak oso pozik agertu dira ekimenaren arrakastarekin.

LARRAITZ ZEBERIO

M.D.

Ume guztiek nahi izan zuten Niko Nuñezen ahuntzei jaten ematea.

Feria dotorea egin zuten Antzuolan San Isidrotan

Ganadu ferian herriko ganaduzaleek erakutsi zituzten ganadu buruak. Herriko artisauak ere egon ziren elizpean

Marijo Deogracias

Herriko plazan jarri zuten San Isidro feria joan zen zapatuan Antzuolan. Ohi denez, herrikoak izan ziren ganadu buru guztiak: txahalak, behorrak, pottokak, idiak, ardiak, behiak, astoak eta ahuntzak.

Artisau erakusketan ere herriko artisauak egon ziren, eta astelehenetan eskulanetarako elkartzen den emakume taldeak ere euren lanak jarri zituen bistara elizpean.

Azoka datutan

- **GANADU POSTUAK**
Guztiak Antzuolakoak: Hirumendi, Altzeta, Idalatorre, Anbu, Iribar, Laskurain, Torre, Lizetxurri eta Niko.
- **ESKULANAK**
Diego Sanchez (makilak), Joseba Gastiain (txirulak) eta Francisco Castro (aulkiak).
- **KUKUMARROAK**
Zortzi talde aurkeztu ziren.

SALDA BADAGO

Eguerditik aurrera elkartu zen jende gehien herriko plazaren bueltan ganadua, artisauak eta bestelako saltokiak ikustera, baina aurretik Trekutzetik pasatu ziren hainbat eta hainbat salda beroa hartzera. Bezperan gertatu zuen Florentino Lamarianok salda goxoa.

San Isidro egunean kukumarroak ezin falta eta plazatik oso gertu jarri zituzten erakusgai. Ez da lehiaketa izaten, baina imajinazioa lantzeko balio izaten du saioak eta horren erakusle aurten ikusi ziren zortzi txorimaloak. Parte-hartzaile guztiek jaso zuten herriko liburu dendan gastua egiteko txarteltxoa.

Aste honetan bete ditu 24 urte kartzelan Jon Agirre preso aramaioarrak

Plataformako kideek 24 plaka jarri dituzte Arrasatetik Aramaiorako bidean, Jonek kartzelan eman duen urte bakoitzeko bana

Larraitz Zeberio

Zapatu arratsaldeaz geroztik, Arrasatetik Aramaiorako errepidearen alde bietan zenbakidun plakak ikus daitezke, Jon Agirre preso aramaioarrak kartzelan 24 urte daramatzala gogoratzeko.

Auto karabanan egin zuten bidea Jon Agirre plataformako kideek. Aramaiora iritsita "Jon etxera" dioen plaka jarri zuten Santikurtz abadearen plazatxoaren bihotzean.

LANGRAITZEN HURRENGO EBAKUNTZAREN ZAIN

Aramaioko plazan ekitaldia egin zuten ondotik plataformako kideek. Bertan, Jonen egungo egoeraren berri eman zuten eta bere bahiketa salatu.

Jon entzuteko aukera ere izan zen, astean grabatutako solasaldi bat jarri baitzuten bozgorailuetatik.

Preso aramaiorra Langraitzeko espetxean dute egin berri dioten ebakuntzaren ondotik. Oraindik beste hiru ebakuntza ditu egiteko. "Ondo nago", esaten zuen grabaketan, "lehengo minak joan zaizkit eta hainbestean". Lagunei eskerrak eman zizkien. "Badakit borrokan ari zaretela eta bihotzez eskertzen dizuet egiten ari zareten lana".

Jonek duela hamar urte bete zituen zigorraren 3/4ak. "Legeak akordeoia bailiran erabiltzen dituzte", esan zuen. "Nahi dutenean euren mesederako auspoa zabaldu eta besteetan gure kalterako estutu".

Ekitaldiari amaiera emateko auto karabana egin zuten plataformakoek Aramaiotik Arrasatera. Hogei bat auto batu ziren.

LARRAITZ ZEBERIO

Plataformako kideak Jonen grabatutako hitzak entzuten.

OHSAS ziurtagiria jaso du Lazpiurrek

Lan segurtasun eta osasun arloan enpresak egindako lana aitortzen du. Estatuan 41ek baino ez dute OHSAS 18001 ziurtagiria

M.B.

Egubakoitzean jaso zituzten Bergarako Lazpiur enpresako langile eta ordezkariek OHSAS 18001 ziurtagiriari dagozkion diplomak. AENOReko Euskadiko presidente Luz Enparantzaren eskutik jaso zituzten.

Lan segurtasunaren eta osasunaren arloan egindako hobekuntzak aitortzen ditu. Gainera, Enparantzak azpimarratu zuen Estatuan 41 enpresek baino ez dutela ziurtagiri hori jaso. Bestalde, gogoratu zuen, kalitateari eta ingurumenari dagozkion ziurtagiriak ere bazituela aurretik Lazpiurrek. Miguel Lazpiurrek, enpresako buruak ere egin zituen hitz batzuk ekitaldian. Bertaratutako langileei eskerrak eman zizkien ziurtagiria lortzeko bidean egindako lanarengatik, baina gogoratu zuen "hau ez da bidearen bukaera, beste abiapuntu bat baizik, hobekuntzarako ibilbidean".

M.B.

Luz Enparantza (erdian) AENOReko presidenteak eman zion ziurtagiria Miguel Lazpiurri (eskuman).

Albiste izango da

OÑATI | EGUAZTENEAN EGINGO DUTE

Hiltegiaren aldeko bilkura egingo dute herri plataformek

Datorren eguaztenean, hilak 18, bilkura iragarri dute Debagoieneko herri plataformek eskualdeko hiltegiaren defentsan.

Ibarreko herri plataformek elkarrekin egingo dute agerraldia Zubillagako hiltegiaren aurrealdean. Ibarreko hiltegia ez ixteak eta zerbitzuari bere horretan eusteak duen garrantzia agertuko dute herri plataformetako ordezkariek eguazteneko batzarrean. Mankomunitateak dagoeneko hartu duen erabakia alde batera lagata, herri plataformek ere agerian utzi nahi dute hiltegiaren garrantzia. Bilkura 19:00etan izango da.

DEBAGOIENA | 15 ORDUKOA DA ETA DOAN

Negozio ideiak sortzeko mintegia antolatu dute datorren asterako

Debagoieneko Mankomunitateak eta Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko Udaletako Enplegu Zerbitzuek negozio ideiak sortzeko mintegia antolatu dute. Negozio ideiaren bat dutenei eta ideiarik eduki gabe, autoenpleguaren bidea jorratu nahi dutenei dago zuzenduta. 15 orduko ikastaroa da, maiatzaren 23tik 25era eta 09:00etatik 14:00etara ordutegian. Bestalde, doan da eta eskolak Arrasaten egingo dira, Debagoieneko Garapen Agentzian (Nafarroa Etorbidea, 23). Plaza mugatuak dira (gehienez 12) eta izena eman behar da: Mankomunitatean, 943 79 30 90 (Jorge); Arrasateko Udalean, 943 90 09 00 (Marga); Bergarakoan, 943 77 91 24 (Marije); edo Oñatikoan, 943 03 77 00 (Jexux Mari).

ARETXABALETA | MARTITZENEAN HASIKO DA

Euskararen Astea antolatu du Loramendi euskara elkarteak

Hilaren 21ean Euskararen Eguna da eta giroa berotzen joateko Euskararen Astea egingo dute Aretxabaletan. Loramendi euskara elkarteak bihar, martitzenean, hasiko ditu antolatu dituen ekitaldiak: euskalkiaren gaineko hitzaldia Bardihardugurekin. Eguaztenean izango da bigarren berbaldia, Euskararen kalitatearen gainekoa, hain zuzen ere. Andoni Egaña eta Joxerra Gartzia arituko dira. Eguenean, *Euskara Senzilloaren Manifestua* antzerkia egongo da (21:00etan) eta egubakoitzean, berriz, Euskararen Egunaren bezperan, mahaingurua antolatu du Loramendi elkarteak. Aretxabaletako Udala, EHE, Emun eta Goiena Komunikazio kooperatibako hizlari bana arituko dira. Gaia: euskararen etorkizuna. Ekitaldi guztiak 19:00etan izango dira, udaletxe zaharrean.

OÑATI | EGUBAKOITZETIK DOMEKARA

Errekalde auzoko jaiak ospatuko dituzte datorren asteburuan

Egubakoitzean hasita, hilak 20, Oñatiko Errekalde auzoko jaiak ospatuko dituzte. 18:30ean izango da etxafuego jaurtiketa, eta txorimalo eta buruhandien kalejira eta txorizo eta sagardo dastatzea egongo dira. 20:30ean garagardo jaia hasiko da eta gauean, Porretas, Potemkin eta Nuevo Catecismo Catolico taldeen kontzertua egongo da. Zapatuan bizikleta ibilbidea eta 3x3 saskibaloi txapelketa jokatuko dira. Arratsaldean Eriz magoaren saioa izango da eta iluntzean Luhartz taldearekin erromeria. Domekan izango da auzo bazkaria eta Hika taldearen *Ixa* antzezlana.

ARRASATE | 16:00ETAN ATERAKO DA

Zapatuko manifestaziorako autobusak antolatu ditu Segik

Zapatuan, hilaren 21ean, manifestazioa eta ekitaldia deitu ditu Segik, 18:00etan, Donostian, *Eskubide zibil eta politikoen defentsan, gazteria aurrera!!* leloarekin. Agerraldi horrekin nahi dute "errepresioaren osotasunari erantzun eta gazteriaren defentsa, antolakuntzaren defentsa eta borrokaren balioa azpimarratzea". Hala azaldu zuten zapatuan Arrasaten egindako prentsaurrekoan. Bestalde, manifestaziora joateko autobusa antolatu dute geurean. 16:00etan abiatuko da Arrasatetik eta gero Bergaran egingo du geldialdia. Autobuserako izena emateko jo Arrasateko Irati tabernara edo Bergarako Arrano tabernara.

Hitzorduak

UNED-BERGARAK 21 IKASTARO ESKAINTZEN DITU UDARAKO |

Udako Ikastaroen laugarren aldian matrikulatzeko epea zabalik dago

UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuak IV. Uda Ikastaroen egitaraua aurkeztu du. 21 ikastaro, tailer eta mintegik osatzen dute, gizarte zientzien, osasunaren eta psikopedagogiaren arloetan. Jardunaldiok Bergaran izango dira ekainean eta uztailean. Argazkian, iazko ekitaldiaren aurkezpena.

Matrikulatzeko epea zabalik dago ekainaren 4a bitartean Bergarako UNEDen edo *www.uned.es/ca-bergara* webgunean.

Bestetik, UEUk Eibarren antolatu ditu bere ikastaroetako batzuk, lehen aldiz. Argibideak, hemen: *ikastaroak.ueu.org* webgunean.

ANTZUOLA |

• Landareen gaineko hitzaldia izango da martitzenean
Nerea Soraluze k egingo du berba Olaran etxean, 19:00etan.

• Odola emateko aukera izango da eguenean
Odol-ateratzeak egingo dituzte eguenean, hilak 19, Olaran etxean, 17:30ean.

ARETXABALETA |

• Udalak irudi korporatibo berria aurkeztuko du
Etzi, eguaztena, izango da aurkezpena udaletxean, 11:30ean.

• Bertsolaritza saioak egingo dituzte hainbat ikaslek
Kurtzebarri eskolako eta Almen guneko ikasleek bertsolaritza proiektua landu dute, eta emaitzak aurkeztuko dituzte etzi, eguaztena, Kurtzebarrin, 17:30ean.

ARRASATE |

• Arizmendiko Guraso Eskolako hitzaldia, bihar
Komunikazio bide egokiak familian izeneko hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, Santa Teresan, 18:00etan.

• Miramon Enpresa Digitalen hitzaldia martitzenean
Nola ezarri merkataritza elektronikorako sistemak delako hitzaldia egingo du Miramon Enpresa Digitalak bihar, martitzena, eskola politeknikoan, 18:00etan.

• Etxeko langileen eskubideak eta etorkinen egoera, hizpide
Etxeko langileen eskubideak eta etorkinen egoera berezia delako hitzaldia egingo dute Isabel Otxoak eta Oscar Vellisicak etzi, eguaztena, udaletxean, 19:00etan.

BERGARA |

• Windows eta Word ikastaroa deitu du Udal Enplegu Sailak
Windows eta Word ikastaroa emango du Udaleko Enplegu Sailak. Izenematea zabalik dago eguena arte, hilak 19, sail horretan, 09:00-13:00.

DEBAGOIENA |

• Agifes elkartearen jairako izenematea, gaur, astelehena
Agifes elkarteak jaialdia deitu du hilaren 21erako Eibarren, eta Debagoienetik autobusa antolatu dute. Izena emateko azken eguna gaur da, astelehena, honako telefonoan: 943 47 43 37.

ELGETA |

• Haurreskolan zabalik dago matrikulazio epea
Haurreskolan matrikula egiteko epea zabalik dago etzira bitartean. Eskolan bertan jaso daitezke izena emateko orriak. Eskola bisitatzeko aukera dute interesa duten aita-amek. Argibideetarako, jo eskolara edo deitu 675 70 70 15 telefonora.

ESKORIATZA |

• Umeen danborrada antolatu gura dutenekin batzarra
Umeen danborrada antolatu gura duten aita-amekin batzartuko da Udaleko Kultura Saila eguenean, hilak 19, kulturaetxean, 18:30ean.

OÑATI |

• Azken egunak Haurreskolan matrikulatzeko
Haurreskolak zabaldu du matrikulazio epea 2004 eta 2005. urteetan jaio diren umeendako. Etzira arte dago horretarako aukera. Argibideak, 943 71 64 05 telefonoan.

• Iraunkortasun Foroak batzar irekia deitu du
Bihar, martitzena, izango da batzarra, kultura-etxean, 19:00etan. Herriaren bizi kalitatea hobetzeko taldea da.

• Denbora librearen gaineko berbaldia Elkar Hezin
Denbora librea familian: jolasa, telebista… konpartitzeko guneak izeneko berbaldia egingo du Eraberri taldeak bihar, martitzena, Santa Eskolastika egoitzan, 19:00etan.

• Ipuinen garrantziaren gaineko hitzaldia izango da
Hilaren 19an, eguena, izango da, haur liburutegian. Guraso eta hezitzaileendako hitzaldia da. Joateko, izena eman behar da aldez aurretik 943 71 61 11 telefono zenbakian.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Zeini dagokio ekaitzaren kalteak beregain hartzea?
Asteon izan ditugun ekaitzek, bati baino gehiagori kalteak eragin dizkio. Gure irakurle bat, esaterako, telebista barik geratu zen eguazteneko ekaitzaren ondorioz eta hauxe esanez idatzi digu: "Ekaitz txiki batek, beti bezala, telebistarik gabe utzi gaitu Arrasaten, ordu dezentetan. Nik enpresa jakin batekin kontrataturik daukat parabolikoaren zerbitzua eta ekaitzaren ondotik, telebistan ohar bat agertu zen esanez telebistako errepetidorea indar gabe geratu zela ekaitzaren ondorioz.

Honen aurrean, nire galdera hauxe da: Zeini dagokio hau konpontzea? Zergatik egon behar izaten dugu hainbeste ordu telebistarik gabe? Zergatik ez zaio arazo honi irtenbiderik topatzen?". Gure irakurleak salatzen duenez, "ekaitza egiten duen guztietan jasaten dugu arazo bera eta espero dut norbaitek erantzutea".

• Euskaraz ez al dakigu bada?
Telefonoz jaso dugu erredakzioan elgetar baten txistua. Zeharo haserretuta deitu zigun asteburuan Gipuzkoako Foru Aldundiaren kartel bat dela eta. Esan zigunez, Elgetako plazan sekula herrian egon denik eta kartel handiena dago egunotan; Aldundiak jarritakoa da, Bergaratik Elgetarako errepidea moztuta dagoelako. "Ikusteko modukoa da kartela, itzela delako, baina ez al dakigu euskaraz? Gaztelania hutsean dago; onartezina da!", esan zigun. "Zer dio ba kartelak" galdetuta "Desvío por Kanpanzar" esan digu barreka gure *txistulariak*.

Eta, arrazoirik ez zaio falta; hainbeste ulertzeko gai bagara herri honetan, hori berori euskaraz jarrita ere, ezta? Baina, agian, Aldundiko teknikariak ez.

Sarean harrapatuta

SGAEk CD eta DVD hutsei jarri dien kanona

CD eta DVD hutsei jarritako kanonari esker, irabaziak asko igo ditu SGAEk. Iaz, 2003an baino 1,6 milioi euro gehiago irabazi zituen EAEn. Orain, beste kanon bat ezarri nahian dabil, kopiak egiteko gailuendako. SGAEren jokabideak eztabaida pizten du ordenagailu eta Internet erabiltzaileen artean. Izan ere, CD eta DVDak ez dira Internetetik ilegalki jaitsitako musika edo filmak gordetzeko bakarrik erabiltzen.

GUTXI BATZUENGATIK DENOK ORDAINDU BEHAR
Kanona ilegalki kopiatzen diren CD eta DVDek sortzen dituzten galerak konpentsatzeko jarri da, hau da, kopiatzen duenak guztia ordaindu beharrean, beste guztion artean bakoitzak zatitxo bat ordaintzen dugu.

Imajinatzen duzue herritar bakoitzak kartzelan astebete pasatu behar izatea harrapatzen ez dituzten hiltzaile eta lapurren zigorrak denon artean ordaintzeko?

Lander / www.goiena.net

DATUAK GORDETZEKO EUSKARRIA ERE BADA
Ez dut ulertzen zergatik ordaindu behar diodan elkarte horri erosten dudan CD bakoitzeko, CD horiek ez baditut musika kopiatzeko erabiltzen. CDa musika euskarri bat izateaz gain, informatika munduan sarri erabiltzen den euskarri bat da.

Ez dakit SGAEk zenbateraino babestuko dituen autoreen eskubideak, baina argi dago informatika zaleonak guztiz urratzen dituela.

sgae / www.goiena.net

KANONA ASKOTAN ORDAINDU BEHAR DUGU
Nik CD bat erosten dut, originala, bertan kanona ordaintzen dut. Gero, autoan entzuteko kasete bat erosten dut eta bertan CDko musika grabatu. Kasete hori erosterakoan ere kanona ordaintzen dut. Gero CD huts bat erosten dut, bertan nire CD originaleko abesti batzuk grabatu eta irrati eramangarri batean entzuteko, CD huts hori erostean ere kanona ordaintzen dut. Gero, CD originala galdu egiten dut eta CD hutsean grabatu ez nuen abesti bat edukitzea nahi dut. Orduan, Internetetik jaisten dut.

Laburtuz, kanona 3 aldiz ordaintzen dut.

Igor / www.goiena.net

CD-AK MERKATZEA DA KONPONBIDEA
Multinazionalen atzean ezkutatzen diren musikari eroso batzuk dira SGAEkoak. Irabazten dituzten milioiekin ez daude pozik eta gure kontura beraien patrikak betetzen dituzte, aitzakia modura diskoak kopiatzen direla esanez.

'Artista' horiek 5 urtean behin ateratzen dituzte diskoak, komertzialak bakarrik. Kristoren promozioak egiten dituzte, CDak oso garestiak dira eta jendeak kopiatu egiten duelako beraiei diru gehiago eman? Pirateoa ez da konponbidea, baina bai CDak merkatzea. Prest egongo lirateke horretarako?

Penag. / www.goiena.net

EROSI CD ORIGINALAK ARTISTON ALDE
Erosi CDak behar diren moduan eta kito. Artistok irabaziko dugu irabazi beharrekoa. Noski, hemen inork ez du pentsatu kantatzen dugunokin.

J. / www.goiena.net

NORBERAK ERABAKI DEZALA, EZ SGAE-K
Garrantzitsua norberaren askatasuna da, ez pertsonak zerbaitetara derrigortzea. Eta noski, kopiatzen bada ez da bizioagatik, baizik eta jendeak musika atsegin duelako eta ez dagoelako prest dirutza horiek ordaintzeko.

Jendeak egin dezala nahi duena, CD huts batean kopia bat egitea ez da originala edukitzea moduan. Berdin pasatzen da arroparekin, edariekin eta beste hainbat produkturekin. Horregatik ez dira hasten produktuen marka guztiak kexaka. SGAEkoak apetatsu batzuk dira, guztion ardura da beraien zentzugabekeriarekin bukatzea!

Prest / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Bidezko merkataritzaren eguna izan dela eta, nolako jarrera dauka bertara jotzen duen erosleak

?

JOSE MARI SARASUA | HIRUATX GKE

Hiru erosle mota daude: produktu ona nahi duena, ekologikoa, kalitate onekoa eta duintasunez ekoiztua; erosketa arduratsua egiten duena, zer erosi, behar al duen eta salmenta noren mesedetan egiten den galderak egiten dituena; eta herri pobretuen alde jokatu nahi duen militantea.

JABIER ETXANIZ | ANELKAR GKE

Jende nahiko militantea izaten da, konpromisoa duena, elkartasuna argi daukana. Baina baita justizia sozial hori garatu nahi dutenak ere; jende horrek badaki produktuak garestiago direla, baina horrela behar du, merkataritza justua da. Beste lurralde bateko gauzak eskuratzera ere etortzen dira.

ANABEL CARPINTERO | FISC GKE

Badago jendea sentsibilitatea duena eta badakiena zer eta zertarako erostera datorren. Oro har, jendearen jarrera positiboa da, kontzientzia badagoela uste dut. Baina oraindik ere lana dago egiteko, izan ere, bidezko merkataritza ezezaguna da neurri batean.

ELISA MAIZTEGI | HARREMAN GKE

Militanteak dira, beraz kontzientziatuta dator jendea. Adin jakin batetik gorako jendea da eta badakitenak, produktuak *merkeak* ez badira ere, prezio justua dutela. Bidezko merkataritza ez da *todoaciena*; lehengaia landu dutenei euren lana ordaintzen zaie produktuaren prezioarekin.

Egunkarietako harribitxiak

AMODIO BERDINAK
Jose Vicente Gracia (27 urte) eta Fernando Garcia (26 urte) elkarrekin bizi dira duela hiru urtetik. Uda honetan ezkondu egingo dira. Hala, Estatuan ezkontza zibila egingo duten lehenengotariko bikote homosexuala da. *El Pais Semanal*ek bikote horren gaineko bizitza jaso zuen atzo zortzi orrialdeko erreportaje batean.

'El Pais'
2005-05-15

HAIN GERTU, HAIN URRUN
Urrutiko kontuak direla ematen duen arren, oso gertukoak dira pobrezia eta bazterketa. Euskal herrian bertan 500.000 lagunetik gora bizi da pobrezian: ezin alokairua ordaindu, ezin jantzirik erosi, ezin behar bezala elikatu... Pobreziaz ari garenean, hainbat irudi estereotipatu etortzen zaizkigu gogora: eskaleak, haur gosetuak, aterperik gabekoak... Baina pobreziak aurpegi asko ditu. Horren harira erreportajea egin zuen atzo *Berria*k. Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen irizpideari jarraituz, pobreziaren ataria 778 euroan dago, eta emakumeak dira kaltetuenak: gizon bakoitzeko bost emakume. Denetan arazorik handiena etxebizitzaren alokairuari aurre egin beharra izaten da.

'Berria'
2005-05-15

Tira, tira...

Zulet 'El Diaro Vasco' | 2005-V-15

Zorroztailea

Bakearen prezioa

Ez dut ezagutzen inongo bake prozesurik, ez oraingorik, ez lehengorik, garbia, debaldekoa eta espontaneoa denik... Kontua ez da bakeari prezio politikoa jartzea, bakea balore bat dela ulertzea baizik; eta hala izanik, ez dauka preziorik, lortu ahal izateko adore handia behar den arren.

'El País' | 2005-05-14

Jota Jota Arrieta

Joan berria dugun asteburu honetan ere makinatxo bat egunkariri pasadatxoa ematea egokitu zait. Nahikoa lan izan dute nire neurona eskasek. Aspaldiko partez gai interesgarri asko ikusi ditut tarte honetara ekartzeko modukoak.

Madrilgo Diputatuen Kongresuko nazioaren egoerari buruzko eztabaida. Honek ekarritako zalapartak. Pilates teknikaren berri ematen digun bi orrialdeko laburpena. Martin Zabaletak euskaldunok Everestera eraman gintueneko 25. urteurrena. Cervantesen On Kixotek ispilura begiratzean Joan Perez de Lazarragaren birraitona ikusten zuenaren errebelazioa. Benedicto XVI.ak martxan jarri duen Joan Paulo II.aren beatifikazio prozesua. Bera ere Corporación Dermoestétican egon zela eta zein pozik bizi den esaten digun tangadun neskaren argazkia. Barçak liga irabazi izana.

Badute egunkariek nondik heldu. Baina nik, behingoz, ez dut komentariorik egingo. Egin behar nituen biak beste batzuek egin dituzte eta. Bata, Felipe eta Letiziari buruzkoa. Gauza ona eta serioa irakurri nahi duenak jo dezala zapatuko *Berria*ra eta irakur beza Juan Kruz Lakasta eta Zaldieroarena *Serio-Demonio*n. Besteari nik tituloa eta goiburua hartu diot. Baina oso-osorik irakurtzeak ez dizue kalterik egingo. Zapatuko *El País*en, 16. orrialdean. Egilea Vicenç Fisas, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Bake Kulturaren Eskolako Zuzendaria. Ondorio bakarra du: Bakeak ez du preziorik. Gaiari nire aportazio xumea hauxe: beste guztiak Euskadiko Kutxako Visa Gold txartelarekin eros daitezke.

"Vicenç Fisasek zapatuko *El País*en kaleratutako artikuluak ondorio bakarra du: Bakeak ez du preziorik"

"Gaiari nire aportazio xumea hauxe: bete guztiak Euskadiko Kutxako Visa Gold txartelarekin eros daitezke"

Egunkarietan irakurri dugu

'Deia'

HITZAK ETA EKINTZAK

Bakea lortzeaz dihardugu eta helburu horrek egon behar du beste edozein interesen gainetik. PSOEk egin duen mugimendua zintzoa bada, merezi du alderdi ia guztiek honezkero erakutsi dioten babesa. Babes hori irabazteko, Zapaterok ekintzekin sendotu beharko du bere diskurtsoa –batzuetan okerra, besteetan kontraesankorra–.

Editoriala
2005-05-15

'El Pais'

NEGOZIAZIOAREN AURREAN

El Paisek argitaratutako inkestak erakusten du espainiarren %61,4 ETArekin harremanetan hastearen aldekoa dela, beti ere, ETAk armak lagaz gero; %28,8 kontra dago. (...) Zaila da ETA desagertzea lortzea ordainetan ezer emateke. Baina, horrexegatik hain justu, guztion konpromisoa beharrezkoa da.

Editoriala
2005-05-15

'El Mundo'

ZAPATEROREN KEZKA HANDIENA

Oso kezkagarria da gobernuko lehendakaria halako garrantzi handiko abentura batean sartzea PPri ezer esan gabe. Baina Zapatero gauza hauek kezkatu beharko lukete, benetan: Arnaldo Otegik egin zizkion laudorioek eta EAJko kideen pozak. Lehen aldia da talde terrorista batek lehendakari bat txalotzen duena.

Editoriala
2005-05-15

'Berria'

PREZIO POLITIKOA

Baina, hori da Zapaterok benetan esan zuena? Hik emadak bakea eta nik tarari! egingo duela? Orain arte, Lehendabiziko partea bakarrik esaten zuen: "bakearen truke ezin da ordain politikorik eman". Lehengoan, ordea, "baina politikak lagun dezake bakea lortzen" erantsi zion ohiko leloari.

Anjel Lertxundi
2005-05-15

ASTELEHENEKO Goienkaria

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Jon Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• ATC. San Sebastianek irabazi zuen Arrasate Hiriko emakumeen lehen saskibaloi txapelketa | 21
• Richard Fernandez garaile Otala Zelaiko krosean 26 minutu eta 35 segunduko denborarekin | 23

Eskoriatzako neskek asteburuko partidua irabazita gertuago dute mailan jarraitzea | 22

REALA
1-3
MALAGA

Reala | Riesgo, Labaka, Brechet, Zubiaurre, rossato, Karpin, Barkero, Mladenovic (Agirretxe 66. min.), Gabilondo (Aranburu 45. min.), De Paula eta Uranga (Xabi Prieto 66. min.).

Malaga | Arnau, C. Navas, Fernando Sanz, Valcarce, Edgar, Juanito, Miguel Angel, Gerardo, Michel (Juan Rodriguez 67. min.), Duda (Manu 82. min.), Baiano (Tote 74. min.).

Golak: 0-1 Edgar (45. min.). 0-2 Baiano 57. min.). 0-3 Baiano (67. min.). 1-3 Agirretxe (81. min.).

Epailea | Puentes Leira. Nahiko ondo. Ez zuen arazorik izan, oso partidu garbia eta falta gutxikoa izan zen eta.

Bestelakoak | Anoetan jokatutako denboraldiko azkenaurreko partidua. Donostiako zelaia erdira arte bete zen. Egindako eguraldi onak ere eragina izan ahal zuen horretan.

Bikain

Riesgo
Partidu bikaina jokatu zuen Debako atezainak. Hiru gol sartu zizkioten, baina beragatik izango ez balitz atzo Malagak sei edo zazpi sartuko zituen.

Kaskar

Labaka
Defentsa guztiak jardun zuen gaizki, oro har. Baina Labakak bi goletan huts handiak egin zituen. Ez da normala azpeitiarrak horrenbeste huts egitea partidu batean.

Esandakoak

"Lehen zatian aukera nahiko garbiak izan ditugu, baina Malaga gu baino hobea izan da gaur".

GARI URANGA | REALEKO JOKALARIA

"Edgarrek lehen gola egin eta gero, aldatz gora jarri zaigu partidua eta azkenean ezin izan dugu Malaga gainditu".

JOSE MARI AMORRORTU | REALEKO ENTRENATZAILEA

ARGAZKI PRESS

Barkero izan zen talde txuri-urdineko jokalarietatik erasoan lan txukun egin zuen bakarra.

REALA | ITXURA ONA EZIN BERRESKURATU DABIL TALDE DONOSTIARRA

Behintzat, atezain bikaina daukagula garbi gelditu da

Jokin Etxebarria

Bartzelonaren aurka izango da, etxean, itxura ona berreskuratzeko azken aukera. Bide batez, datorren denboraldiari begira zaleei ilusioa berriz piztea lor dezakete

Aste guztian zehar Getaferen aurkako partiduko itxura txarra bazterrean utzi eta ona berreskuratu behar zela esaten jardun dute Realean. Domeka heldu eta Malagak hiru puntuak Andaluziara eraman ditu. Asko esan baina gutxi egin. Askotan kostatu egin izan zait jokatu eta jolastu ezberdintzea. Atzokoan garbi ikusi nuen. Realak lehen ordu laurdenean jokatu egin zuen; handik eta epaileak amaiera adierazi arte jolasean ibili zen.

Gezurra dirudi, nahiko ondo hasitako partidu bat nola aldatu daitekeen barregarri geratu arte. Eskerrak Riesgok sekulako partidua egin zuen, bestela... Atzokoan *San Riesgo* bihurtu zuten atezaina Realeko defentsek. Gutxienez, datorren urtera begira atezainik fitxatu beharrik ez dela garbi gelditu zen.

AZPIMARRATZEKO GUTXI

Zerbait azpimarratzekotan, Malaga Reala baino gehiago izan zela azpimarratu behar da. Eta Realak krisi hau lehenago izan balu, gaur egun oso larri ibiliko zela.

Alde onak ere badaude. Barkerok nahiko erdiraketa onak egin zituen, De Pedrok alde egin zuenetik faltan botatzen zena. Eta bestalde, Agirretxek gola egin zuen Anoetako bere debutean.

FUTBOLEKO LEHENENGO MAILAKO TALDEAK

• REALAK MEREZI AL DU FAIR PLAY-AGATIK EUROPARA JOATEA?



PELLO ETA LUCIANO | BERGARA

"Gustura joango ginateke UEFAko partiduak ikustera, sartzen baldin bada"

Pello orain dela 20 urteko partiduez gogoratzen da oraindik. Bereziak omen dira partiduak: "gustura joango ginateke UEFAko partiduak ikustera, sartzen baldin bada". Luciano ere ados dago Pellok dioenarekin.

INAXIO | BERGARA

"Hurrengo urtean liga eta kopa bakarrik hartu beharko dute kontuan"

Europako partiduak gehiegi izan daitezkeela uste du Inaxiok: "Hurrengo urtean liga eta kopa bakarrik hartu beharko dute kontuan, talde gaztea da eta".

JULEN | ARRASATE

"Oso zaila ikusten dut modu horretan Europara sailkatzea"

"Oso zaila ikusten dut modu horretan Europara sailkatzea. Ideia ona da Fair Play bidez UEFAra joatea, baina suertea izan behar da", adierazi zuen Julenek.



IBAI, IÑIGO ETA AITOR | BERGARA

"Realak ez du merezi Europara joatea denboraldi txarra egin du eta"

"Realak ez du merezi Europara joatea denboraldi txarra egin du eta", adierazi zuten Aitorrek eta Ibaiek. Iñigok, bestalde, kontrakoa uste du "pozik ikusiko nuke Reala UEFAn eta modua Fair Play bada, berdin da", esan zuen Iñigok.

ANA, FEBO, FERNANDO ETA AITOR | BERGARA

"Realak Europara joateko aukera baldin badu, joan dadila"

"Realak Europara joateko aukera baldin badu, joan dadila. UEFAko partiduek asko motibatzen dute. Ez dute zerikusirik liga eta koparekin. Partidu politak dira ikusteko eta hori merezi dute Realaren zaleek", adierazi zuen laukoteak.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Vila-real-Albacete	1-0
Mallorca-Athletic	4-3
Levante-Bartzelona	1-1
At. Madril-Betis	1-2
Zaragoza-Deportivo	2-2
Sevilla-R. Madril	2-2
Espanyol-Valentzia	2-2
Racing-Getafe	2-1
Numantzia-Osasuna	2-2
Reala-Malaga	1-3

HURRENGOAK

R. Madril-At. Madril
Osasuna-Espanyol
Malaga-Racing
Albacete-Reala
Getafe-Sevilla
Levante-Valentzia
Betis-Zaragoza
Deportivo-Mallorca
Bartzelona-Vila-real
Athletic-Numantzia

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.**Bartzelona**	**82**	36	25	4	7	70	26
2.**Real Madril**	**76**	36	24	8	4	68	31
3.**Vila-real**	**61**	36	17	9	10	62	32
4.**Sevilla**	**59**	36	17	11	8	44	39
5.**Betis**	**58**	36	15	8	13	58	47
6.**Espanyol**	**57**	36	16	11	9	51	45
7.**Valentzia**	**54**	36	13	8	15	52	39
8.**Athletic**	**51**	36	14	13	9	59	50
9.**Deportivo**	**50**	36	12	10	14	45	46
10.**Zaragoza**	**50**	36	14	14	8	49	51
11. **At. Madril**	**48**	36	13	14	9	38	32
12.**Getafe**	**45**	36	12	15	9	36	44
13.**Reala**	**45**	36	13	17	6	45	54
14.**Malaga**	**45**	36	13	17	6	36	48
15.**Osasuna**	**45**	36	12	15	9	45	63
16.**Racing**	**41**	36	11	17	8	40	56
17.**Levante**	**36**	36	9	18	9	38	54
18.**Mallorca**	**35**	36	9	19	8	38	62
19.**Albacete**	**27**	36	6	21	9	31	53
20.**Numantzia**	**25**	36	5	21	10	27	60

Kiniela

KINIELA

1. Numantzia-Osasuna	X
2. Mallorca-Athletic	1
3. Zaragoza-Deportivo	X
4. At. Madril-Betis	2
5. Sevilla-R. Madril	X
6. Racing-Getafe	1
7. Reala-Malaga	2
8. Vila-real-Albacete	1
9. Levante-Bartzelona	X
10. Espanyol-Valentzia	X
11. Cadiz-Valladolid	1
12. Celta-Murtzia hiria	2
13. Almeria-Lleida	X
14. Salamanca-Cordoba	2

Athletic

Hiru gol sartu ostean partidua galtzeak arrazoi bakarra du: defentsa

Beste behin ere defentsako akatsek porrota ekarri zioten Athletici eta UEFA urruntzen hasi da

Jon Unamuno

Kopako resaka izango zutela eta, Athleticen aldetik partidu eskasa ikustea uste nuen. Hasiera halakoa izan zen. Farinosek 10. minutuan etxekoen lehen gola sartu zuen. Beste aukeraren bat ere izan zuten, baina ez zen bigarren gola heldu. Athletic hobetzen hasi zen eta Llorentek 26. minutuan berdinketa lortu zuen. Ia hurrengo jokaldian falta egin zuten Mallorcako atzelariek eta Tikok falta ona jaurti zuen. Hala ere, kornerrera joan zen baloia. Horrela heldu zen gola; izan ere, Gurpegi atzetik sartuz, bat eta bikoa sartu zuen. Hirugarrena ere heldu zitekeen, baina Velasco Carballo epaileak ez zuen penalti argi bat ikusi. Horrela amaitu zen lehen zatia, momentuan UEFAko postuetatik puntu batera.

Partiduaren bigarren zatiak hasiera eroa izan zuen. Victorrek partidua berdindu zuen. Segituan Okubok partiduari buelta eman zion. Hortxe agertu zen Orbaiz. Falta jaurtiketa magistral baten bidez, hirukoa ezarri zuen markagailuan. Areto futboleko partidua zirudien zeuden gol kopuruengatik. Campano kapitainak laugarrena sartzeko aukera paregabea izan zuen. Hurrengoan Victorrek ez zuen huts egin. Lau eta hirukoa ageri zen markagailuan. 17 minututan lau gol sartu ziren eta jakina zen horrek ezin zuela horrela jarraitu.

30 MINUTU BASURARA

Lau eta hirukoarekin amaitu zen partidua. Athleticek ez zuen ezer erakutsi eta egon ziren aldaketak ere ez zuten zentzu handirik. Urzaiz oso egoera txarrean dagoela ikusi zen. Oraindik beste bi urte jokatuko ditu tuterarrak eta nik neuk zalantza asko ditut bi urte horietan izango duen forma fisikoarekin.

Mallorcak asko zuen jokoan. Levanterekin batera postu bat borrokatzen dihardu lehenengo mailan gelditzeko eta lau eta hirukoari edozein modutan eutsi zion. Hirutan ere ikusi izan genuen gurutze gorrien kotxea Saint Moixeko zelaian. Denbora galtzea zuten helburu eta azkenean lortu zuten. Atsedenaldian zegoen ilusio guztia 17 minututan galdu zen.

Denboraldiko ilusioa eguaztenean galdu zen. Min handia eman zuen Athletic Kopako finaletik kanpo gelditzea. Askoz hobeto jokatu zuten, baina azkenean penaltiek ez zioten justiziarik egin partiduari. Orain ea etxean garaipenarekin bukatzen duen.

MALLORCA
4-3
ATHLETIC

Mallorca | Moya, Cortes, Ballesteros, Iuliano, Poli, Campano, Arango, Pereyra, Victor, Farinos eta Okubo (Tuni 71. min.).

Athletic | Arantzubia, Murillo, Luis Prieto (Del Horno 75. min.), Lacruz, Casas, Orbaiz, Gurpegi, Tiko, Yeste (Arriaga 19. min.), Ezkerro (Urzaiz 75. min.) eta Llorente.

Golak: 1-0 Arandak (14. minutuan). 1-1: Ezkerrok (40. minutuan).

Epailea: Velasco Carballo. Llorenteri egindako penalti argia ez ikusteagatik hutsekoa merezi du epaileak.

Bikain

ORBAIZ
Sekulako gola sartu zuen nafarrak falta jaurtiketaz. Erdi aldian lan asko egin zuen eta bere paseak direla eta arriskua sortu zuen. Denboraldi bikaina egin du.

Kaskar

VALVERDE
Ez zuen aldaketekin asmatu. Llorente jokoan egonda, Urzaiz Ezkerroren ordez aldatzeak joku eskasaren alde apustu egitea da.

17 minututan lau gol egin zituzten bigarren zatiaren hasieran

Min handia eman zuen Athletic Kopako finaletik kanpo gelditu dela ikusteak

ASTELEHENEKO
GOIENKARIA
2005eko maiatzaren 16a

ATC-BITHON

Jende ugari bildu zen ATECEk antolatutako kirol jaian, eta jarritako helburua lortu zuten

Bi egunez, hainbat kirol ikusi eta egiteko aukera izan dute Arrasatera hurbildutakoek

Jasone Zabala

Asteburuan, Gipuzkoako ATECEk (Hartutako kalte zerebrala), dirua biltzeko antolatutako lehen kirol jaia arrakastatsua izan zen. Arrasateko Musakolako kiroldegian egin zen eta elkarterako dirua biltzea zuten helburu; eta lortu zuten. Ekintzak zapatu goizean hasi ziren, defentsa pertsonala, Judoa, Body Jam-a eta Body Combat-a egin zituzten. Goizean ez zen jende askorik izan, nahiz eta jendea hurbildu zen bertara. Baina arratsaldean, haurren aerobic erakustaldia eta Aerobithoia izan ziren nagusi, eta jende asko izan zen bertan, sari banaketa eta guzti. Domekan, berriz, sarrerarik ordaindu gabe sartu zen jendea. Aukea-ren sari banaketa izan zen, eta ondoren gimnasia erritmikoa.

ANTOLATZAILEAK POZIK

Antolatzaileak pozik azaldu ziren jendeak emandako erantzunarekin, helburua bete baitzuten. Guztira, 300 pertsona aritu ziren antolakuntzan eta ekitaldia aurrera eramateko lanetan. Diru dezente lortu zuten bi egunetan (3.000 euro inguru) bertara hurbildutakoek egindako diru laguntzekin; gainera, herriko hainbat dendak ere beraien laguntza eman zuten. ATECE-k Arrasaten duen egoitza berritzeko erabiliko du batutako dirua.

JUDO ETA DEFENTSA PERTSONALA. Julio Gallego azpeitiarraren eskutik, astean zehar entrenatzen dituen hainbat gaztek beraien trebeziak erakutsi zituzten. Txikienak gurasoekin aritu ziren.

BODY COMBAT. Boxeoa eta kick boxing-a uztartzen dituen kirola da. Arrasateko Irudi gimnasioaren eskutik, hamabost bat lagun aritu ziren musika lagun zutela, besoak eta hankak erritmo bizian mugitzen.

BODY JAM. Ariketa honetan zenbait koreografia egiten dituzte musika lagun dutela. Hamabost bat lagun aritu ziren bertan. Kasu honetan ere Arrasateko Irudi gimnasioaren eskutik aritu ziren.

AEROBITHOIA. Aerobithoian guztira 82 parte-hartzaile izan ziren zapatu arratsaldean. Gehienak bailarakoak izan ziren, baina Euskal Herri guztitik etorri zen jendea. Irabazlea, Ramon Merino gasteiztarra izan zen.

AUKEA SARIAK. AUKEAk kirol munduko arrasateararrak saritu zituen: Victor Amosorrain mendizalea eta Arrasate Errugbi Taldea. Bestalde, sari berezien artean, Jose Luis Ezkurra eta "Pitxi" ere omendu zituzten.

GIMNASIA ERRITMIKOA. Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeak antolatuta, eta Arantzazu Zubiaren eskutik, 76 neskak, beraien trebeziak erakutsi zituzten baloiekin, sokekin eta uztaiekin.

• USTE DUZUE HELBURUA BETE DELA ASTEBURUKO KIROL JAI HONEKIN?

KARMELE ETA LEIRE | ARRASATE ETA ESKORIATZA

"Helburua bete dela uste dugu, garrantzitsua baita elkartearentzat dirua biltzea. Goiza nahiko ondo joan da eta jendea hurbildu da".

JUDY | GARAGARTZA

"Helburua dirua biltzea da elkarteari laguntzeko, eta seguru nago lortuko dugula ".

JAIME ETA KATALA | ARRASATE

"Gu boluntario moduan ari gara, baina gure nahia ahalik eta jende gehien etortzea da. Laguntza asko izan dugu hau guztia antolatzeko orduan".

MARIA EUGENIA | ARRASATE

"Arrakasta izan duela uste dut. Iruditzen zait ekitaldia ondo joan dela".

IMANOL, RAUL ETA JUAN CARLOS | ARRASATE, BERGARA ETA ARRASATE

"Hobetzeko den edozer gauza eskertzekoa da. Instituzioen aldetik laguntza gehiago izatea espero genuen, ez baitira guk nahi beste inplikatzen. Gaurko jaiak lagunduko duela uste dugu".

GRUPO ARKAUZ

1950 Zure etxea da 2005

ARKAUZ
ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
SUKALDE INTEGRALA
FAGOR
Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ
ELEKTRAGAILUAK
expert
Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

AINTZANE AGIRRE

Defentsak ez zuen baloia urruntzerik izan, eta bakar bakarrik zegoen Aitor bigarren zutoinean gola egiteko.

Etxeko porrotarekin agur esan dio Bergarak mailari

BERGARA
1-2
ZARAUTZ

Bergara | Markel, Elkoroberezibar (Martin 67. min.), A. Berraondo, Arazkonaga, A. Agirre, Mikel Otero, Alejandro (Imanol 55. min.), Arana eta Garin.

Zarautz | Ibai, Silban, Errasti, Zumeta, Eneko, Andoni (Xato 87. min.), Carlos, Segu, Aitzol (Txapas 69. min.), Igor eta Aitor.

Golak: 0-1 Aitor. 1-1 Alejandro. 1-2 Andoni.

Epailea: Tornos jauna. Jokaldi eztabaidagarri batzuk izan zituen. Marrazainek ez zioten asko lagundu, eta ondorioz, hartutako erabaki batzuk okerrak izan ziren. Penaltia argia izan zen eta horretan ez zen eztabaidarik egon.

Jon Unamuno

Mailari agur esan zion Bergarak zapatuan. Anaitasunak puntu bat lortu zuen eta horrela zazpi puntura gelditzen da mailari eusteko balio duen postua.

Zarautz ondo ikusi genuen Agorrosinen. Jokaldi politak egiteaz gain, oso serio jokatu zuten, garaipenaren bila. Orioko Bergararen saltsan sartuta zegoen eta alboko herrikoei laguntza ederra eman zien Zarautzek. Eibarko bigarren taldearen jaitsiera dela eta, preferentetik lau talde joango dira lehenengo erregionalera. Talde bat Bergara izango da eta gogoeta sakon bat merezi du egoerak. Mailaz jaitsita, jokalari askok taldetik alde egingo dute seguru asko. Gazte mailan ere jokalari askok azkeneko urtea dute. Denborak esango digu zer gertatuko den hurrengo denboraldian.

DENBORALDI KASKARRA

Hau ez da izan Bergararen denboraldia. Gordobil eta Azkargorta hasi ziren entrenatzaile moduan, baina emaitzak ez ziren heldu eta entrenatzailea aldatzea erabaki zuten. Oregirekin gauzak ez dira askoz hobeto joan eta Bergarak ezin izan du putzutik atera.

Bi partidu gelditzen dira eta ez dago ezer jokoan. Hala ere, taldeak zaleen berotasuna behar du inoiz baino gehiago. Ilusioa itzuli beharko litzateke Bergarara.

Nagusitasunez irabazi zuen Aloñak Trintxerpen

TRINTXERPE
2-3
ALOÑA

Trintxerpe | Bengoa, Del Rio, Lopetegi, Gonzalez, Montaño, Varela, Escribano (Infante 51. min.), Berasategi, Rodriguez (Carrera 50. min.), Perez eta Iza (Solana 73. min.).

Aloña | Jonan, Sanchez, Igartua, Aitor Lopez, Olalde, Barrena, Jokin (Astola 76. min.), U. Biain (Aratz 90. min.), Garmendia (Moiua 61. min.), Aramendi (Arregi 62. min.) eta Roberto (Albizu 67. min.).

Golak: 1-0 Escribano. 1-1 Biain. 1-2 Biain. 2-2 Carrera. 2-3 Moiua.

Epailea: Asier Agirre. Ondo adierazi zituen jokaldiak. Marrazainak ere ondo.

A.G.

Jokaldi politak, irabazteko gogoa, taldearen batasuna... hainbat ezaugarri erakargarrirekin jokatzen dihardu azkenaldian Oruetaren taldeak. Mailari eutsi ostean, denboraldiari merezitako agurra ematen dabiltza.

Partidua galtzen hasi arren, Biainek penaltiz sartutako bi golei esker, atsedenaldira abantailarekin joan ziren. Bigarren zatian Trintxerpe berdinketaren bila abiatu zen eta baita lortu ere. Hala ere, Aloñak garaipena nahi zuen eta Moiuak hirugarrena sartu zuen. Trintxerpek 4 korner izan zituen jarraian bukatu aurretik, baina hiru puntuak Oñatira joan ziren.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Mondrako atezainak hiru gol jaso zituen Argixaon.

Mondrak ezin izan zion Bergarari lagundu

UROLA
3-2
MONDRA

Urola | Haritz, Alberdi (Zubiria 86. min,), Zubiaurre I, Mikel, Elgarresta, Caballero, Nogales (Mantecon 87. min.), Piñeiro (cabrera 78. min.), Zubiaurre II, Avila (Lasa 88. min.) eta Martin (Guerrero 89. min.).

Mondra | Ander, Markel, Illart (Eldin 68. min.), Laspiur, Argider, Ruben (Torres 84. min.), Loiti, Garmendia (Inazio 56. min.), Maikel (Arkaitz 56. min.), Keixi eta Lopez (Asier 83. min.).

Golak: 1-0 Zubiaurre I. 2-0 Zubiaurre I. 2-1 Loiti. 2-2 Loiti. 3-2 Caballero.

Epailea: Jose Antonio Belmonte. Gaizki.

A.G.

Urolakoak putzuan daude, eta Mondraren aurkako partiduan derrigorrezkoa zuten puntuak lortzea. Hori dela eta, oso gogor irten ziren golaren bila. Mondrakoak, ezer jokoan ez zutela eta, tentsiorik gabe irten ziren zelaira. Ondo ordaindu zuten hori, bi gol egin zizkietelako etxekoek lehen zatian.

MONDRA NAGUSI

Bi golak jaso eta gero hasi zen Mondra nagusitzen. Gutxika-gutxika gehiago zirela erakutsi zieten Urolakoei. Hala ere, atsedenaldira markagailuan azpitik zirela joan ziren. Baina bigarren zatian, Arrasatekoen nagusitasuna erabatekoa izan zen. Loitik bi gol egin zituen, eta markagailua berdintzea lortu zuten. Baina orduan, etxekoengan nerbioak hazten zihoazen heinean, partidua gogortzen hasi zen. Epaileak etxekoen alde egin zuen erabaki askotan, eta hori gutxi balitz, defentsan hutsegite bat izan zuten Mondrakoek eta hirugarrena sartu zuten etxekoek, horrekin hiru puntuak lortuz.

Mutrikuko puntuarekin, bakarraren faltan UDA

MUTRIKU
0-0
UDA

Mutriku | Osa, Xabi, Agirrezabala (Azkarate 73. min.), Etxaburu, Lopez, Mugerza, Txurruka (Arreitunandia 60. min.), Zubiaurre (Otxagabia 77. min.), Garalde (Mikel 66. min.), Agirretxea eta Prieto (Osinalde 77. min.).

UDA | Aitor, Raul (Lur 82. min.), Oxel, Armendariz, Unamuno (Andoni 79. min.), Alvaro, Uribetxebarria (Iturbe 45. min.), Igartua, Arriaga (Gari 64. min.), Orueta eta Imanol (Vadillo 70. min.).

Epailea: Kepa Sanz. Etxekoen alde adierazi zituen hainbat jokaldi eta lekuz kanpoko txartelak atera zituen.

A.G.

Beste puntu bat eta matematikoki eutsiko dio mailari UDAk. Garaipenarekin ziurtatua egongo litzake, baina zelaiaren egoera ez zen Recioren mutilen gogokoena.

Mutriku izan zen baloiaren jabea hasiera baten. Aretxabaletarrak belar altuarekin eta zelaiaren estutasunarekin ez ziren ondo egokitu eta asko sufritu zuten lehenengo zatian.

TAKTIKA ALDAKETA

Arazoa zein zen ikusita, Reciok taktika aldaketa bat egin zuen eta asko nabaritu zen jokoan. Lehen zatiko estuasunak alde batera laga zituzten eta aukera batzuk ere izan zituzten.

Unamunoren ordez irten zen Andoni.

Liga amaitzeko bi partidu gelditzen dira. Hurrengo astean Oiartzun izango dute bisitari Ibarran. Ea amaiera ederra den!

• SENIOR MAILAKO NESKAK

JOKIN ETXEBARRIA

MONDRA 3 - BETIONA 0

Partidu bikaina egin zuen Mondrak Beti Onaren kontra. Denboraldi osoan bigarren aldia zen belarrezko zelaian jokatzen zutena eta hori nabaritu egin zen. Birritan, eta bietan irabazi. Oso nagusi izan ziren atzoko partiduan zehar etxekoak. Lehen zatian bi gol sartu zituzten, eta aukera pila bat sortu zituzten. Gainera, defentsan arazorik ez zuten izan, kanpokoak areara heldu ere ez zirelako egin ia. Bigarrenean ere nagusi izan ziren, eta beste gol bat sartu ahal izan zuten.

• OHOREZKO GAZTEAK

Azken jokaldian lortu zuen berdinketa Mondrak

MONDRA
2-2
MARTUTENE

Jokin Etxebarria

Emozioz beteriko partidua izan zen Atxabalpen zapatuan jokatutakoa. Bi taldeak maila ez galtzeko borrokan dabiltza eta hori igarri egin zen.

Lehen zatian etxekoak gehiago izan ziren. Gola egin zuten eta beste aukera pare nahiko garbiak sortu zituzten. Hala ere, erakutsitako jokoa ez zen onegia izan.

Bigarren zatian ere nagusi izan ziren etxekoak. Baina hamar minutu faltan epailea nahasten hasi zen. Arrazoi gabe Martutenekoen jokalari bat kaleratu zuen, eta gaizki egin zuela ohartarazita berak ikusitako penalti bat adierazi zuen etxekoen aurka. Kanpokoak gora etorri ziren eta bigarrena ere sartu zuten. Baina, luzapeneko azken jokaldian, dena galduta zegoela ematen zuenean, korner baten bidez etxekoek berdinketa lortu zuten.

• 1. MAILAKO GAZTEAK

Liga garaipena ospatzeko xanpaina zabaldu zuten

BERGARA
4-0
ANTONIANO

Jon Unamuno

Heltzekotan zen txapelketaren garaipena eta Mendekoste jaiekin batera heldu da azkenean. Ez zuten arazo handirik izan Abetxukoren mutilek Antoniano taldea menperatzeko.

Crespok sartu zuen lehen gola. Eskumatik gogotsu egin zuen sarrera eta baloia ondo gurutzatuz, garaipena bidean jarri zuen. Bigarren golean, bikain aprobetxatu zuen Antxonek Ibonek egindako pase bat. Lehenengo zatian Antonianokoek jaurtiketa bakarra egin zuten eta Paulek ondo gelditu zuen baloia.

Bigarren zatian ere Bergarak aukera asko sortu zituen eta hauetako bitan etorri ziren Zankadaren eta Cresporen golak. Baloia denbora gehiago egon zen Antonianoren hanketan, baina aukera garbirik sortu gabe. Merezitako xanpaina edan zuten, onenak izan dira eta.

• 1. MAILAKO GAZTEAK

Motibazio falta eta guzti, lau egin zizkion Zestoari

UDA
4-3
ZESTOA

A.G.

Partidu txarra eta zaila ikusi ahal izan genuen zapatuan Ibarran. Zestoa zuten aurkari Joserra Prietoren mutilek.

Hasiera ona izan zuten etxekoek, eta lehen gola Ibabek sartu zuen. Bazirudien partidua kontrolatuta zutela UDAkoek, baina joko txarra eta kontrolik gabekoa zen nagusi. Zestoak berdinketaren gola sartu zuen berehala, baina aretxabaletarrak atsedenaldiaren aurretik markagailuan aurreratu ziren De Palaciok sartutako golarekin.

Bigarren zatian, Zestoak berriz ere berdinketaren gola sartu zuen. UDAk aukera asko izan zituen eta gol ugari sartzeko aukera izan zuen. Hirugarren gola De Palaciok sartu zuen, eta laugarrena eta azkena, Gorostidik. Hurrengo bi partiduak irabazita zortzigarren postuan amaituko lukete liga UDAko gazteek.

Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

ZULOTIK BEHERA JAUSI DA BERGARA

Liga amaitzeko bi jardunaldi gelditzen diren arren, Bergarako taldeak ezin izango dio mailari eutsi. Pena handia da herriarentzat, baina denboraldi guztian zehar zulotik atera ezinda aritu dira. Igor Gordobilekin zuloan zeuden, eta Fernando Oregirekin gauzak ez dira batere hobetu. Talde gaztea du Bergarak, baina hori ez da aitzakia gauzak hobeto egiten saiatzeko. Datorren denboraldian, lehen maila erregionalean, ondo jokatzen saiatu beharko dira berriz igotzeko.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Tolosa**	**79**	36
2. **EHU**	**75**	36
3. **Ordizia**	**66**	36
4. **Zarautz**	**61**	36
5. **Real Union**	**59**	36
6. **Trintxerpe**	**51**	36
7. **Mondra**	**49**	36
8. **Aloña Mendi**	**48**	36
9. **Pasaia**	**46**	36
10. **Zestoa**	**46**	36
11. **Mutriku**	**46**	36
12. **Touring**	**44**	36
13. **Hondarribia**	**44**	36
14. **UDA**	**44**	36
15. **Anaitasuna**	**43**	36
16. **Orioko**	**43**	36
17. **Urola**	**39**	36
18. **Beti Gazte**	**38**	36
19. **Bergara**	**36**	36
20. **Oiartzun**	**24**	36

Emaitzak

Orioko-Beti Gazte	3-2
Urola-Mondra	3-2
Ordizia-Pasaia	2-1
Mutriku-UDA	0-0
Oiartzun-Touring	2-2
Bergara-Zarautz	1-2
Hondarribia-Zestoa	1-1
Trintxerpe-Aloña M.	2-3
Real Union-Tolosa	1-2
Anaitasuna-EHU	0-0

Hurrengoak

Orioko-EHU
Beti Gazte-Urola
Mondra-Ordizia
Pasaia-Mutriku
UDA-Oiartzun
Touring-Bergara
Zarautz-Hondarribia
Zestoa-Trintxerpe
Aloña-Real Union
Tolosa-Anaitasuna

OHOREZKO GAZTEAK

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Antiguoko**	**74**	32
2. **Zumaiako**	**60**	32
3. **Union Txiki**	**60**	32
4. **Zarautz**	**59**	32
5. **Sto. Lizeoa**	**59**	32
6. **Ordizia**	**51**	32
7. **Eibartarrak**	**51**	32
8. **Anaitasuna**	**50**	32
9. **Hondarribia**	**50**	32
10. **UDA**	**44**	32
11. **Mondra**	**37**	32
12. **Martutene**	**37**	32
13. **Mariño**	**36**	32
14. **Urola**	**35**	32
15. **Aldapetarrak**	**35**	32
16. **Aurrera**	**34**	32
17. **Euskalduna**	**21**	32
18. **Dunboa-Eguzki20**		32

Emaitzak

Ordiza-UDA	0-1
Urola-Antiguoko	0-1
Mariño-Aurrera	3-0
Mondra-Martutene	2-2
Eibarta.-Union Txiki	1-5
Aldapetarrak-Zarautz	3-2
Hondarribia-Dunboa	6-1
Sto.Lizeoa-Anaitasun.	3-2
Euskalduna-Zumaiako	0-4

Hurrengoak

Ordiza-Zumaiako
UDA-Urola
Antiguoko-Mariño
Aurrera-Mondra
Martutene-Eibartarrak
Union Txiki-Aldapetarrak
Zarautz-Hondarribia
Dunboa-Sto To. Lizeoa
Anaitasuna-Euskalduna

BESTELAKOAK

GAZTEEN EUSKADIKO LIGA (KOPA)

Real Union-Aloña Mendi	3-1

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Kostkas-Arrasate	5-0
Bergara-Antoniano	4-0
UDA-Arizmendi-Zestoa	4-3

BIGARREN MAILAKO GAZTEAK

Beasain-Bergara	3-2
Kostkas-Antzuola	6-1

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Aldapetarrak-Aloña Mendi	2-3
Bergara-Beasain	1-0

LEHEN MAILAKO KADETEAK

Ilintxa-UDA Arizmendi	2-4

BIGARREN MAILAKO KADETEAK

Amara Berri-Bergara	0-0
Antzuola-Beti Ona	3-1

EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA)

Aloña Mendi-Allerru	1-2
Zumaiako-Almen UDA	5-1
Mondra-Beti Ona	3-0
Anaitasuna-Bergara	6-2

EMAKUMEEN F-8 LIGA

Añorga-Bergara	8-0

INFANTIL OHOREZKO MAILA

UDA Arizmendi-Zarautz	4-3

INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)

Aurrera-Aloña Mendi	1-1

INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)

Intxaurre-Arrasate	2-3

INFANTIL TXIKI (KOPA)

Lengokoak-UDA Arizmendi	3-0

INFANTIL F-8 (AZKEN FASEA)

Antzuola	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena
Ordizia-Bergara	3-0

ALEBINAK (2. FASEA)

Billabona-UDA	3-6
Anaitasuna-Bergara	4-4
Euskalduna-Aloña Mendi	3-4

• EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

AGR Arrasatek laugarren postua ziurtatuta dauka

Azken hamar minutuetan utzi zuen erabakita Urdulizen aurkako partiduan

AGR ARRASATE
27-24
URDULIZ

AGR Arrasate | Egaña, Valle, Jonan Eskibel (2), Aitor Eskibel (1), Eneko (2), Agiriano (1), Aitor Garcia (2), Ruben (1), Oier (1), Murillo (1), Alzelai (6), Kepa (4), otegi (5) eta Manu (1).

Urduliz | Juaristi, Martin (2), Pedro (2), josu (5), Ugarte, Barbier (1), Perez (2), Gomez (2), Iñigo (5), Turiel (5) eta Ander.

Bost minuturo markagailua: 2-2, 5-5, 6-7, 8-8, 10-10, 14-11, 18-12, 19-16, 20-20 22-20, 25-22, 27-24.

AINTZANE AGIRRE

Azken minutuetan defentsa sendotu zuten etxekoek eta kanpokoei gola egitea asko kostatu zitzaien.

Jokin Etxebarria

Martitzenean Donibaneren aurkako partidua berdindu eta gero, ia matematikoki galdu zituen AGR Arrasatek igoera lortzeko aukerak. Hala ere, partidu guztiak irabazita, oraindik ere esperantzaren bat egon liteke. Baina horretarako, partidu guztiak irabazi behar dira. Lehen pausoa zapatuan eman zuen Urdulizen aurka irabazi eta gero. Ez zen partidu onegia izan, baina partiduko momentu batzuetan eskubaloi polita ikusteko aukera izan zen.

Lehen zatia nahiko berdindua izan zen. Etxekoak erasoan oso trabatuta ibili ziren, ia denboraldi osoan bezala, baina etxekoen atezainek lan ona egin zuten eta markagailua parekatua edukitzea lortu zuten. Azken minutuetan, defentsa sendotuta, baloi batzuk berreskuratu eta golak eginez abantaila txiki bat lortu zuten.

JOKOA, BIGARREN ZATIAN

Bigarren zatiaren hasieran, etxekoak nagusi izan ziren. Baloia ederki mugitu zuten jaurtiketa errazena bilatu arte, eta defentsa on bat eginez abantaila handitzea lortu zuten. Baina epaileek hartutako erabaki polemiko batzuk tarteko burua galdu zuten, eta kanpokoek markagailua berdintzea lortu zuten. Azken hamar minutuetan baina, berriz ere nagusi zirela erakutsi zuten eta lortutako abantaila txikia bukaerara arte eustea lortu zuten.

• EUSKADIKO TXAP.

Erraz irabazi zuen Verkolek Bera Beraren etxean

BERA BERA
14-20
VERKOL ALOÑA

A.G.

Garaipenarekin itzuli ziren Egiatik Oñatira Verkoleko neskak. Partidua ez zen ona izan. Jokalari gutxi zeuden eta ohiko lekuetatik kanpo jokatu behar izan zuten. Hala ere, garaipena lortzeko nahikoa izan zen. Ez ziren gol asko egon, baina beti eutsi zioten abantailari.

Datorren astean amaiera emango diote denboraldiari Zubikoan. Lehen nazionaleko Zarautz taldea izango da bisitaria. Benetan partidu zaila izango da, baina oso polita bai jokatzeko eta baita ikusteko ere.

Denboraldi ona egin dute oñatiarrek. Bosgarren postuan amaitu dute. Hurrengo denboraldian bloke berak jarraitzea garrantzitsua litzake.

• BIGARREN TERRITORIALA

AINTZANE AGIRRE

ALOÑA 32 - HONDARRIBIA 29

Kopako azken partidua jokatu zuten zapatuan oñatiarrek Hondarribiaren aurka. Dena erabakita dagoela etorri ziren hondarribiarrak Oñatira, kopako finala jokatuko baitute. Partidu zaila espero zen, etxekoak hiru aste jokatu gabe baitzeuden, baina ez zuten erritmo falta nabaritu. Erasoan defentsan baino hobeto aritu ziren, eta kanpotarrek intentsitaterik gabe jokatu zuten. Honegatik gol sorta handia ikusi ahal izan genuen bi taldeen aldetik. Datorren denboraldia prestatzen hasi beharko dira Iñigo Aranbururen mutilak.

• GAZTE MAILAKO MUTILEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

AINTZANE AGIRRE

ALOÑA MENDI 20 - GATZ MUSEOA JAKION 23

Ez talde batek, ez besteak ezer jokoan ez dutenean, oso partidu ona egin dezakete. Baina baita oso txarra ere, motibaziorik ez dutelako. Horrelako zerbait gertatu zitzaien Oñatiko eta Arrasateko gazteei zapatuko derbyan. Oso partidu motela jokatu zuten, defentsek ez zuten eta eraso bizkorrak jokatzen uzten, eta horrek eragin zuen markagailua parekatu samar egotea. Arrasatearrak izan ziren markagailuan aurretik denbora guztian, baina abantaila handiegirik gabe, eta emozioak azken minutuetara arte iraun zuen.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN TERRITORIALA IGOERA FASEA

AGR Arrasate-Urduliz	27-24

LEHEN ETA BIGARREN TERRITORIALA (KOPA)

Arrasate-Donibane	b.b
Aloña Mendi-Hondarribia	32-29
Bergara	Atsedena

SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Bera Bera-Verkol Aloña	14-20

GAZTE MAILAKO MUTILEN GIPUZKOAKO KOPA

Aloña Mendi-Gatz Museoa	20-23

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA

Arrasate-Leizaran	4-20
Arrate-Bergara	26-13
Elgoibar-Verkol Aloña	19-20

KADETE MAILAKO MUTILEN GIPUZKOAKO KOPA

Arrate-Aloña Mendi	51-19
Elgoibar-Arrasate	32-9
Bergara	Atsedena

KADETE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA

Verkol Aloña-Aiala Molarri	29-17

LEHEN MAILA |

EHU-Atc. San Sebastianek irabazi zuen Arrasateko txapelketa

Bai antolakuntzako kideek eta baita jokalariek ere gustura amaitu zuten txapelketaren emaitzarekin

Jokin Etxebarria

Lehenengoz antolatu zuten emakumeen saskibaloi txapelketa bat Arrasaten eta asteburu honetan jokatu da. Punta-puntako saskibaloia ikusi zen gainera. Antolatzaileek, herrian emakumeen kirolari bultzada eman nahian, lehen mailako lau saskibaloi talde ekarri zituzten: Gasteizko Caja Vital Abaroa, Getxo eta Donostiako EHU-Atc. San Sebastian eta Belfast taldeak.

Antolatzaileek txapelketa aurrera ateratzeko orduan zailtasun bat edo beste izan bazuten ere, goizean goiz hasi ziren lau taldeak saskiratzeak bilatzeari. Goizeko 10:00etan jokatu zen lehen finalerdia, eta 19:00etan izan zen finala. Denbora honetan beste bi partidu gehiago ikusteko aukera ere egon zen.

Kontuan hartuta domekan zelako eguraldia egin zuen –kalean ibiltzeko, pabilioi batean sartuta egotea baino gehiago– eta jaiak han eta hemen izan zirela, Iturripera nahikoa jende hurbildu zela esan daiteke, batez ere, finalera.

JOKIN ETXEBARRIA

Gustura eta umore onez amaitu zuten parte-hartzaile guztiek Arrasate Hiriko lehen emakume saskibaloi txapelketa.

Arrasaten, emakumeen kirolari bultzada eman nahi diote

Lehiaketa bai, baina giro onean jokatutakoa. Hori antzeman zen behintzat, garaikurren banaketaren ondoren. Guztiek, kirol-

Antolatzaileak bigarren edizioa antolatzeko prest agertu ziren

tasun osoz, EHU-Atc. San Sebastian taldea txalotu zuten, eta guztiek bukatu zuten barrezka eta batak besteari txisteak botatzen. Jokalarien artean giro ezin hobea erakutsi zuten horrela.

Antolatzaileak ere pozik agertu ziren txapelketa nola joan zen ikusita, eta datorren urterako –laguntza gehiago topatzen badute behintzat– bigarren edizioa antolatzeko prest agertu dira.

FINALA ERRAZ IRABAZI

Goizean jokatutako finalerdien emaitzek Caja Vital Abaroa eta EHU-Atc. San Sebastian taldeak eraman zituzten finalera. Bi taldeak, ligan, lehen postuetan sailkatu dira eta final borrokatua izango zela espero zen. Ez zen horrela izan. Abaroak ez zuen partidu ona jokatu. Huts asko egin zituen erasoan, batez ere taula azpian, eta gainera donostiarren erasoa gelditzeko ez ziren kapaz izan. Partidu guztian zehar gipuzkoarrak ibili ziren markagailuan gainetik eta, azkenean, finala eurek irabazi zuten.

• FINALAREN AURRETIK BESTE HIRU PARTIDU JOKATU ZIREN GOIZ ETA ARRATSALDEZ

ABAROA NAGUSI. Lehen final-erdiak ez zuen kolorerik izan. Gasteizko taldeak lehen zatian bere nagusitasuna erakutsi zuen. Defentsan oso sendo ibili zen eta baloi pila bat lapurtu zituen kontraerasoan irteteko. Bigarren zatian denbora pasa irten ziren, finalean pentsatzen. Azken emaitza: Caja Vital Abaroa 77 - Getxo 40.

BELFASTEK EZIN. Bigarren finalerdia Donostiako bi taldeek jokatu zuten, nor baino nor. Atc. San Sebastianek bere nagusitasuna erakutsi zuen. Belfast-ek lehen laurdenean bakarrik eutsi zuen. Bigarren laurdenean Belfastek lau puntu besterik ezin izan zituen sartu. Azken emaitza: Belfast 55 - EHU-Atc. S.S. 70.

GETXO HIRUGARREN. Txapelketako partidurik lehiatuena jokatu zuten Getxok eta Belfastek. Partidu polita izan zen, oso berdindua, eta amaiera arte emozioz beterikoa. Azkenean, eta puntu bakarrarengatik bada ere, Getxora alde egin zuen hirugarren postuak. Azken emaitza: Belfast 61 - Getxo 62.

• LEHEN MAILA

Lehenengo postua Aloñarentzat

Oñatiarrek denboraldiko azken partidua jokatu zuten Ordiziaren aurka. Partidu hasiera gogorra izan zen arren, azkenean etxekoak nagusi

ALOÑA MENDI
65-41
ORDIZIA

Aloña Mendi | Goitia (3), Madariaga (8), Otamendi (12), Zabaleta (7), Ugarte, Blanco (12), Arregi (2), Garcia (2), Anton (7), Mendiola eta Madinabeitia (7).

Ordizia | Garmendia (2), Ayerbe (6), Arratibel, Mangas (2), Mendizabal (3), Garin (19) eta Barandiaran (9).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena: 20-10. Bigarren laurdena: 34-22. Hirugarren laurdena: 53-30. Laugarren laurdena: 65-41.

Jasone Zabala

Partidua hasi aurretik, oñatiarrek bazekiten irabaziz gero taldeko lehen postua bereganatuko zutela, eta ondorioz, motibazio handiarekin hasi zuten norgehiagoka. Bazirudien partidu nahiko parekatua izango zela, ordiziarrek oñatiarrek baino garaipen bat gutxiago zutelako.

Lehenengo laurdenean, etxeko taldea partiduan sartuta ibili zen, eta banakako defentsa gogor bati esker markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. Kanpotarrek ez zituzten ideiak oso garbi, eta Aloñak berriz, erasoan erraz gainditzen zuen Ordizia egiten ari zen zonakako defentsa, baloia ederki mugituz eta jaurtiketa errazak bilatuz. Lehen hamar minutuen amaieran, 10 puntuko aldea zuten etxekoek, eta bazirudien ez zutela arazorik izango partidua irabazteko.

Bigarren laurdenean, kontraeraso pila bat egin zituzten etxekoek ordiziarrek galdutako baloiak aprobetxatuz, eta 5. minutuan, 28 eta 10eko emaitzaz alde egin zuten markagailuan; markagailuko aldea handitzen joan zen poliki-poliki. Handik aurrera, etxekoen erlaxazioa etorri zen, eta horren ondorioz, eta ordiziarren kanpoko jaurtiketei esker, 12 puntuko aldearekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, argi zuten atsedenaldian lortutako 12 puntutako errenta mantendu edo handitu egin behar zela, azken minutuetan larritasunik ez pasatzeko, eta horrela egin zuten oñatiarrek. Berriz ere defentsan gogor hasi ziren, eta 12 eta 0eko partziala lortu zuten, norgehiagoka guztiz erabakita utziz. Handik aurrera ezer gutxi izan zuen partiduak, eta azken 7-8 minutetan, bi taldeak lasaiago ibili ziren, saski batean zein bestean saskiratzeak txandakatzen zituzten, eta oraingo honetan ordiziarrek gehiago asmatu zuten, tentsio gabe jokatzen ari baitziren ordurako.

AINTZANE AGIRRE

Oñatiarrek hasieratik hartu zuten menpean Ordiziako taldea.

AMAIERA BIKAINA

Azkenean beraz, garaipena etxean gelditu zen, eta Aloña Mendik bere taldeko txapelduna izatea lortu du, bederatzi garaipen eta bi porrotekin Denboraldiari amaiera ona eman diote Ander Gorostiagaren mutilek.

• 2. MAILA NAZIONALA

Larri izan bazen ere, garaipena lortu zuten

ERANDIO
54-61
ESKORIATZA

A.G.

Partidu zaila eta borrokatua jokatu zuten domekan Eskoriatzako neskek. Markagailuan hasieratik jarri ziren aurretik Fernando Rasoren neskak, eta hau ona izan zen taldearentzat, nahiz eta markagailua beti parekatuta joan. Atsedenaldira 6 puntuko abantailaz iritsi ziren eskoriatzarrak. Partidu garrantzitsua zen, eta jokalarien jokoan urduritasun hori nabaritu zen. Baloiak galtzen hasi ziren, baina Erandiok ezin izan zuen inoiz markagailuan aurretik jarri, nahiz eta eskoriatzarren jokoa ez zen batere ona. Beti izan zuten 6-8 puntuko abantaila amaiera arte eta partidua irabazi egin zuten.

AZKEN PARTIDUA

Erandioren aurka jokatutakoa bederatzigarren partidua izan zen, eta datorren astean azken partidua izango dute Universidad Publica de Navarra taldearen aurka. Eskoriatzak partidua irabazi egin behar du, horrela, beste partiduetako emaitzei begira ez egoteko. Horregatik, zaleen animoak inoiz baino garrantzitsuagoak izango dira.

Azken bost minutuetan irabazi

ESKORIATZA
24-20
LITAPHAR

Eskoriatza | Prieto (2), Gonzalez, Akizu, Calderon (5), Marrodan, Ros, Caceres (7), Lage (2), Balanzategi, Balzategi (6) eta Garai (2).

Litaphar | Gallastegi (5), Altolagirre (3), Iriarte (5), Otaño, Etxezarreta (3), Juaristi eta Etxaniz (4).

Laurdenetako markagailuak: Lehenengo laurdena 8-7. Bigarren laurdena 10-9. Hirugarren laurdena 12-15. Laugarren laurdena 24-20.

Jokin Etxebarria

Puntu gutxiko partidua ikusi zen zapatuan Intxaurtxuetan. Oso berdindua. Defentsak erasoak baino gehiago izan ziren, eta ez talde batek, ez eta besteak ere, ez zuten erasoan asmatu. Bigarren laurdenean eta hirugarrenean, guztira sartutako puntuak ikusi besterik ez dago. Hala ere, etxekoek abantaila txiki bat mantentzea lortu zuten atsedenaldira arte.

HIRUGARREN LAURDENA GAIZKI

Ez zuten ondo hasi hirugarren laurdena etxekoek. Epailearen lan kaskarrak partidutik atera zituen jokalariak, eta azpeitiarrek markagailuari buelta emateko aprobetxatu zuten. Gainera, etxekoek kanpokoen zonakako defentsa erasotzeko arazoak zituzten. Horri, taula azpian Litapharrekoak nagusi zirela gehitzen badiogu, ez zuten lan makala izan etxekoek markagailuari buelta emateko. Baina azken minutuetan zeukaten indar guztia atera eta irabaztea lortu zuten.

AINTZANE AGIRRE

Zonakako defentsa erasotzeko arazo asko izan zituzten eskoriatzarrek.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

SENIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Tximista elek.-Candy BKE	57-67
Aloña Mendi-Ordizia	65-41

GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Araneta-Loyola	57-36
Mugarri Alkesa-Tolosa	b.b.
Easo C-Aloña Mendi	81-18

KADETE MAILA

Mugarri Alkesa-Ordizia	68-36
Lacor-Easo B	46-47
Aloña Mendi-Cafes Aitona B	61-47

NESKEN BIGARREN MAILA

Erandio-Eskoriatza	54-61

GAZTE NESKAK

Bilintx-Aloña Mendi	22-39
Eskoriatza-Litaphar	24-20

KADETE NESKAK

Bergara	Atsedena
Andraitz-Eskoriatza	23-63

Atletismoa

• OTALA-ZELAI 27. HERRI KROSA

KROSA | IBILBIDE BERRIAN LASTERTU ZUTEN KORRIKALARI NAGUSIENAK

Ritxar Fernandez azkarrena izan zen Otala-Zelaiko 27. krosean

8.410 metroko ibilbidean 62 korrikalarik hartu zuten parte. Markak Ritxar Fernandezek eta Onintza Zeberiok ezarri zituzten

AINTZANE AGIRRE

Azkar hasi ziren parte hartzaileak lasterketan eta ondorioz marka onak lortu ziren.

Jon Unamuno

Hainbat mailatako korrikalarik hartu zuen parte krosean. Hasiera batean benjaminak irten ziren. 600 metroko ibilbidea zuten betetzeko eta, azkarrena, Jon Aranburu aretxabaletarra izan zen mutikoetan eta Malen Ruiz de Azua, arrasatearra, nesketan. Ondoren, alebinen txanda izan zen. 800 metroko ibilbidea zuten aurrean eta azkarrena Lander Arrizabalaga aretxabaletarra izan zen; nesketan, Malen Gallastegi bergararra. Txikienekin infantilek amaitu zuten; izan ere, kadeteetan ez zuen inork izena eman. 1.000 metro bete behar zituzten. Infantiletako azkarrena Jon Basterra arrasatearra izan zen eta nesketan Lide Pagaldai aretxabaletarra. Guztira 96 umek jokatu zuten lasterketa desberdinetan.

Nagusienen lasterketa 11:00etan hasi zen. Ibilbidea berria zen eta aurten denbora onenak finkatu dira Ritxar Fernadez (26:35) eta Onintza Zeberiorekin (35:01). Ritxarren denbora ikusita, lasterketa azkarra izan zen. Kilometroa 3:15 denboran egin zuen eta horrek maila altua eskatzen du. Bigarrena Antonio Gomez durangarra izan zen. Aurreko astean Arrasate-Oñati lasterketan ere bigarrena izan zen, Asier Cuevasen atzetik. Hirugarrena Zuhaitz Ezpeleta izan zen. Aurreko egunean Ernioko igoeran aritu zen eta nahikoa egin zuen 27:18 denbora egitearekin. Emakumeetan Onintza Zeberio azpeitiarrak erraz irabazi zuen. Ia lau minutuko abantaila lortu zuen Idoia Perez de Mendizabal arrasatearekiko. Hirugarrena ere arrasatearra izan zen. Izaskun Uribesalgok 44:12 denbora egin zuen.

Kilometroa 3:15 denboran egin zuen Ritxar Fernandezek eta horrek maila altua eskatzen du

Lasterketa amaitu ondoren, poniak, jolasak, bazkaria, trikitilariek... eguna borobildu zuten

EGUN LUZEA

Lasterketa amaitu ondoren, poniak, jolasak, bazkaria, trikitilariak eta beste hainbeste ekintza egon ziren. Egun atsegina pasatzeko egitarau egokia prestatu zuten antolakuntzakoek. Eguraldia ere ederra izan zen eta aldagai guztiak alde daudenean jendeak erantzun egiten du. Horixe gertatu zen Otalan.

• IRABAZLEEN ESANAK

ONINTZA ZEBERIO | AZPEITIA

Pozik zegoen azpeitiarra. Aurten Donostiako triatloian parte hartzeko asmoarekin dabil eta korrika behintzat atzean geldituko ez dela erakutsi zuen Otalan.

RITXAR FERNANDEZ | OÑATI

Ritxarrek gaizki pasa zuen lasterketaren hasierako zatia. Azkar irteteak eta errepidean izateak, hankak nekarazi zizkion. Aurten ere Behobia du helburu.

Auto lasterketa

Aitor Zabaleta nagusitu zen Gorlako XV. igoeran

Jon Unamuno

Hamabosgarren urteurrena bete zuen Gorlako igoerak eta nagusi bat baldin badauka Aitor Zabaleta da. Horixe ikusi genuen zapatuan. Motor zaharrarekin parte hartu behar izan zuen eta, ondorioz, berak igoeran lortutako denborarik onenarekin konparatuz lau segundu galdu zituen. Denboraldi honetan parte hartzen zuen lehenengo lasterketa zen. Bigarren Josu Ugarte igo zen. Arrateko igoeran ere Ugarte izan zen bigarrena eta orain sailkapen orokorrean lehenengo dago Josu 50 punturekin. Aitor Ramirez oñatiarrak seigarren amaitu zuen Gorlako igoera; Arraten bosgarren egin zuen. Bi lasterketen artean lortutako 34 puntuekin, bigarrena da oñatiarra. Hirugarren Aitor Zabaleta eta Ander Vilariño daude, 32na punturekin.

Eguraldiak lagundu egin zuen eta zaleek ez zuten hutsik egin. Aipatzekoa da Fernando Brizuelak bere Ford Sierra Cosworthrekin egin zuen erakustaldia. Istripu bat ere egon zen lasterketan. 12. kurban Rober Garciak autoaren kontrola galdu zuen eta hortxe amaitu zen lasterketa berarendako.

ANTOLATZAILEAK POZIK

Goizetik lasterketa gertatzen jardun zuten hainbat antolatzailek. Detaile txikiak zaindu behar dira; izan ere, auto gidariek eta ikusleek arriskua handia izan dezakete. Maila altuko antolakuntza dela erakutsi zuten bergararrek.

AINTZANE AGIRRE

Ibilbide hasieratik abiadan igo ziren autoak.

KULTURA

Aisialdia eta Zerbitzuak

• Abdon Juaristi margolariaren erakusketa antologikoa zabaldu dute Bergaran | 26
• Peio Añorga ipuin kontalariak saioa egingo du eguenean Eskoriatzan | 27

Roberto Izagirre bergararrak irabazi du Kilometroak'05en literatur lehiaketa | 27

ASTEBURU MAGIKOA ELGETAN

AINTZANE AGIRRE

Denetariko magia ikuskizunak egon dira Elgetan asteburu honetan. Kalera ere atera zuten Magia Mostra antolatzaileek. Publikoa, liluratuta.

ASTEBURU MAGIKOA ELGETAN I 1.000 IKUSLE ERAKARRI DITU HIRU EGUNEKO MAGIA MOSTRAK

Adin guztietako publikoa aho zabalik ilusionismo eta magia joko mordoarekin

Era askotako magia ikusteko aukera egon da Elgetako I. Magia Mostran, dena kalitate handikoa. Parte-hartzea izan da Mostraren beste ezaugarria. Publikoak nahi beste hartu du parte asteburuko ikuskizunetan

Larraitz Zeberio

Laster hasiko dira Espaloiko arduradunak II. Magia Mostra antolatzen. Lehen edizioak izan duen arrakasta ikusirik dagoeneko agindu dute datorren urtean ere magiak bere tartea izango duela Kafe Antzokiko egitarauan. "Mostrak oso sentsazio onak utzi ditu, jasotako erantzuna oso ona izan delako", esan digu Espaloiko kide Iban Arantzabalek. "Lehenengo Mostrak balio izan du Espaloiko antolatzaileak magiara gerturatu, barrutik ezagutu eta hurrengo urtean Mostra hobeagoa egiteko".

Mostraren arrakasta, hain zuzen, ikuskizunen kalitatean, aretoaren egokitasunean eta publikoaren parte-hartzean oinarritu da. "Maila oso goian geldi-tu da", aitortu digu Gasteizko Ilusionismo Elkarteko Jose Angel Suarezek. "Datorren urtean egiten denak ona beharko du".

KALITATE HANDIA

Kalitatea eta barietatea izan dira Mostrako bi ezaugarri aipagarri. Anthoni Blake mentalista ospetsua, itzal txinatarrak magia bihurtzen dituen Sergi Buka mago kataluniarra, umore magian bikainak diren Jandro eta Luis Boyano, magia eszenikoan oso modan dagoen Arcadio ilusionista... izaera oso ezberdinetako magoak aritu dira asteburuan Elgetan. Gehienak, mago gazteak eta berritzaileak euren espezialitateetan.

PUBLIKOA BIKAIN

"Magoak oso gustura egon dira Espaloian", azaldu digu Suarezek. "Lokala oso aproposa da magia emanaldietarako eta publikoa itzela izan da. Magia komunikazio bisuala eta gestuala da gehien bat. Espaloiak antzoki handiek ematen dituzten baliabide tekniko guztiak eskaintzen ditu eta gainera publikoa bertan dago, ia agertokian bertan".

> Jasotako erantzuna ikusirik hurrengo urtean ere egingo da Magia Mostra
>
> Ikusleek zutik agurtu zuten Blake eta gogoz txalotu gainerako magoak

Ikusleek zutik agurtu zuten Blake mentalista eta gustura txalotu gainerako mago guztiak. Hunkitu, dibertitu eta harritu egin du Elgetako I. Magia Mostrak. Baita publikoaren artean zeuden magia munduko beste 25 bat profesionalak ere.

Parte-hartzea izan da Mostraren beste ezaugarria. Publikoarekin egin dituzte magoek euren magia joko gehienak eta Elgetan askok eskaini dute euren burua lan horietarako.

• HIRU EGUNEKO MAGIA MOSTRAN HAINBAT IKUSKIZUN IKUSTEKO AUKERA IZAN DA ELGETAN





BARIKUAN MENTALISMOA. Anthony Blake mentalista ospetsuak izan zuen mostra zabaltzeko ardura. Zur eta lur utzi zituen ikusleak. Askok hartu zuen parte bere ikuskizunean eta denetarik asmatu zuen: papertxoetan idatzitako zenbakiak, publiko artean ikusle batek bildutako bost gauza... Bere esanetan "gizakiak aurreikusten errazak gara eta horrekin jokatzen dut". Elgetar asko igo zen agertokira kolaboratzaile lanak egitera. Irudian, Eli eta Jose Ramon. Mentalistak proposatutako hainbat jokotan hartu zuten parte. Ez zizkioten gauzak erraz jarri. Barre ere gustura egin genuen eurekin.

ZAPATUAN MAGIA ESZENIKOA. Oso bestelako magia ikusi genuen zapatuko Magia Galan. Goi mailako lau mago aritu ziren Gasteizko Ilusionismo Elkarteak diseinatutako ikuskizunean. Argazkiko Luis Boyanoren magia komikoarekin barre egin genuen gustura eta Sergi Bukaren itzal txinatarrek aho zabalik utzi gintuzten. Jandro valentziarrak umore dosi handia ekarri zuen. Argi ikusi genuen zergatik den Estatuko Umore Magiako irabazlea. Arcadiok, azkenik, oso magia ikusgarria egin zuen. Uso bihurtu zuen ukitutako ia guztia. Txan magoak borobildu zuen Magia Gala bere aurkezpenekin.



DOMEKAN GLOBOFLEXIA... Loreak, txakurrak, barraskiloak, ezpatak... Domeka eguerdian denetarik egin zuten puzgarri koloretsuekin Elgetako plazan bildutako lauzpabost globoflexia artistek. Gasteizko Ilusionismo Elkarteko kideak ziren guztiak eta laster ikusi genituen haurrez inguratuta. Haiek zer eskatu berehala sortzen zuten irudia puzgarriekin. Trebetasun handia erakutsi zuten; izan ere, bizpahiru minutu nahikoa izaten zituzten irudi berriren bat egiteko. Haurrek ez ezik zenbait gurasok ere eraman zuen irudiren bat etxera. Eskatzen ausartu behar horretarako ordea!

... ETA MAGIA KALERA. Elgetako I. Magia Mostran magia ikuskizunez gain kaleko magia ere egon zen domekan. Gasteizko Ilusionismo Elkarteko hiru mago aritu ziren goiz osoan zehar herriko plazan publikoarekin jolasean. Kolaboratzaileak behar izaten zituzten magoek eta oso parte-hartze ona aurkitu zuten plazan bildutako jendartean. Barre egin zuen gustura jendeak magoen ateraldiekin. Magia trukuak nondik harrapatuko saiatu zenik ere egon zen. Karta jokoek buruhauste bat baino gehiago eragin zuten Elgetan. Arratsaldeko itxiera ekitaldia Morrison magoak egin zuen.

• IKUSLEEN ARTEAN BATUTAKO ZENBAIT IRITZI

IMANOL ETA JAVIER | ELGETA

Magia Mostra Elgetan izanik ikuskizun ia guztietara hurbildu dira Imanol eta Javier. "Asko gustatu zaigu ikusitako guztia baina Anthony Blake da gure gustukoena. Bikaina benetan".

RICARDO | BERGARA

"Lehen aldia da magia ikuskizun batera etorri naizela. Harrigarria benetan! Nire faboritoa, Txan magoa".

ERIZ | ORERETA

Magoa da eta asko gustatu zaio mostra. "Oso maila handikoa benetan. Jende gaztea eta oso saritua".

AZKARATE
AROZTEGIA
K21
Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020

MUSIKA | MUSIKAREN SORKUNTZA, PRODUKZIOA, EDIZIOA ETA ZABALKUNDERAKO HERRI EKIMENAZ ARITU ZIREN ARRASATEKO GAZTETXEAN

Diskoetxe autogestionatu eta parte-hartzailea sortzeko topaketa egin dute

Gaztemugian egindako proposamenaz jardun zuten Euskal Herri osotik etorritako musikazaleek egun osoko jardunaldian

Marijo Deogracias

CDen edizioa, webgunea, musika grabaketa, kontzertuak, diseinua... Musik(h)erria proiektuak horiek guztiak hartuko ditu bere gain eta hori nola egin eztabaidatzeko Arrasateko gaztetxean elkartu ziren Euskal Herri osotik etorritako 30 bat musikazale. Batzuk musikariak, beste batzuk kontzertu antolatzaileak eta baita Gaztesareko jendea ere. Denak musika egin eta zabaltzeko ohiko bide komertzialetatik ihes egiteko bide alternatiboa sortzeko gogoz. Aitortu zigutenez, ez zuten askorik aurreratu, baina bai "helburuak finkatu eta horien gainean eztabaidatu. Gure asmo nagusia diskoetxe bat sortzea den arren, euskara eta euskal kultura eta emakumeen parte-hartzea musikan bultzatzea ere gure helburuen artean dira. Emakumeen parte-hartzeari buruz, gaurko batzarrera bi neska bakarrik agertu dira, baina saiatu egingo gara gehiago izaten. Deia zabalduko dugu".

Proiektua Markinan egin ziren Gaztemugi topaketetan aurkeztu zen lehenengoz, eta harrezkero, proiektua definitzen aritu dira Musikasarearen bitartez.

AUTOGESTIOA LANDUZ

Ez dute nahi Musik(h)erria diskoetxe arrunta izatea "eredu alternatiboa, herritarra, parte-hartzailea nahi dugu", adierazi ziguten hara batutakoek."Proiektu autogestionatua izan behar dela argi daukagu; ez dakigu kooperatiba modura, elkarte modura ala zein izaerarekin, baina parte hartuko dutenek egingo dute egiteko dagoen guztia".

Euskal Herriko osoko musika zaleak batzartu ziren Arrasateko Gaztetxean

Hurrengo batzarra Gasteizen izango da maiatzaren 28an, gaztetxean, 10:30ean



AINTZANE AGIRRE

Goizeko 11:30etatik arratsaldeko 18:00ak arte iraun zuen I. topaketak.

HURRENGOA GASTEIZEN

Arrasaten egindakoa lehenengo topaketa izan zen eta aurrera begirako pausuak finkatzeko balio izan zuela esan ziguten hara elkartutakoek.

Hurrengo hitzordua ere jarri zuten: maiatzaren 28an, Gasteizko gaztetxean. Goizeko 10:30ean jarri dute topaketaren hasiera ordua. Batzarrera musika talde gehiago agertzea nahi dute topaketako kideek.

Informazio gehiago: *http://www.mundurat.net/mailman/listinfo/musikasare.*

Aita Gaizka Barandiaran ikertzaile eta idazle oñatiarra omendu zuten atzo Aldundian

Euskal folklorearen ikerketan eta zabalpenean egindako lana eskertu nahi izan diote omenaldiarekin

M.B.

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak eta Euskal Dantzarien Biltzarrak Aita Gaizka Barandiaran (Oñati, 1916) omendu zuten atzo Donostian, Foru Aldundian.

Antolatzaileen arabera "Barandiaranek arlo asko jorratu ditu: folklorea, musika, etnologia, historia, hizkuntza, literatura, irakaskuntza... Folkloreari dagokionez, Euskal Herriko dantza asko sakon ikertu ditu eta gure herritik kanpo oso ezaguna da dantza eta ohiturei dagokienez". Horregatik, "hura osotasunean, baina, batik bat, folkloreari lotuta egon den Barandiaran jakintsua omendu nahi izan dugu".



ARGAZKI PRESS

Irudian, Barandiaran (eserita) Aldundiko agintariekin batera.

EKITALDI HUNKIGARRIA

Donostiako Udal Txistulariekin hasi zuten omenaldi eguna. 10:30ean meza entzun eta gero, harrera egin zioten Aldundian Barandiarani. Han zituen zain, besteak beste, Diputatu Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Joxe Ignazio Ansorena eta Joxe Mari Velez de Mendizabal euskaltzain eta Barandiaranen biografiaren egilea. Antolatzaileen esanetan ekitaldia "hunkigarria izan zen eta Gaizka ere hala zegoen".

ERAKUSKETA | **ABDON JUARISTIREN ANTOLOGIA**

Eguenean inauguratu zuten Bergaran Aroztegi erakusketa aretoa. Abdon Juaristi (1948-1997) margolari bergararraren 50 bat lanekin zabaldu dute, gainera. Ikusgai dauden koadroen artean, familiaren koadroez aparte, han eta hemen banatutakoak jaso dituzte erakusketarako. Bestalde, margolariaren erakusketa antologikoan, Juaristik hainbat garaitan egindako lanak daude ikusgai: 1970etik 1997ra artekoak, hainbat estilo eta formatutakoak. Inaugurazio ekitaldian udal agintariak, Beart artisten elkarteko hainbat kide eta herritar ugari izan zen. Erakusketa ekainaren 12ra arte dago ikusgai. | A.G.

Kilometroak'05en literatur lehiaketa Roberto Izagirre bergararrak irabazi du

Fernando Morillo idazlearen istorio bat bukatzean zetzan lehiaketa. Emaitza 'Dragoiaren orroa' izeneko liburua da

Leire Kortabarria

Kilometroak 2005en literatur lehiaketak badu irabazlea: Roberto Izagirre Barruetabeña, 43 urteko bergararra. Helburua zen Fernando Morillo idazleak hasitako kontakizuna bukatzea. Hamar lan jaso zituzten, hiru helduenak eta zazpi ikasleenak, guztiak gipuzkoarrak; horien artean Izagirrerena hobetsi zuen Fernando Morillok, Ana Toledo Deustuko Unibertsitateko ordezkariak eta Arantza Baltzategi antolatzaileak osatutako epaimahaiak.

Saritutako ideiatik abiatuta idatzitako nobela, *Dragoiaren orroa*, ekainaren 17an aurkeztuko dute Donostian. Egun berean egingo dute sari banaketa ekitaldia Aretxabaletan.

ZELAN AUKERATU ZUTEN

Fernando Morillok, Kilometroak 2005en kokapena kontuan hartuta, hango mitologia kutsua zuen istorioa idatzi zuen: azken euskal dragoiaren desagerpena, Udalaitzeko Mateo Txistu, Anboto bertan izatea... Erantzunak harritu egin zuen idazlea: "Nik, asko jota, ohar moduko batzuk espero nituen. Neure harriduraraako, lan-sorta polita jaso zen". Kontakizuna jarraitzea lan zaila zela dio, baina lehiakide batzuek "oso modu duin eta onean" egin zutela.

Ana Toledo epaimahaikideak azaldu du zelan hartu zuten erabakia: "Baziren zenbait idatzi modu egokian heltzen ziotenak kontaketaren amaierari eta, jakina, horietara mugatu zen aukera. Horietako zeinahi izan zitekeen irabazle duin, nahiz eta aho batez eman zitzaion saria garaileari". Lotura, koherentzia, pertsonaien karakterizazioa, hizkera... hartu zituzten kontuan.

Labur

Lore-arte ikastaroa antolatu du Bergarako Emakumeen Elkarteak

Lore-artea ikasteko aukera izango da Bergaran hilaren 24tik 26ra bitartean, 15:00-16:30 ordutegian. Izena emateko, jo euren egoitzara (Barrenkalea, 31) edo deitu 943 76 07 95 telefonora astelehen eta eguaztenetan, 15:00-16:30, edo martitzen eta eguenetan, 09:00-12:00. Beste zenbaki bat da 625 70 78 92.

Mª Cruz Alberdik emango du ikastaroa. Lore-zentroak egiten irakatsiko du lehenengo, baina parte-hartzaileen interesen arabera aukeratuko dituzte hurrengo gaiak.

Pello Alberdi elgetarrak margo erakusketa ipiniko du Espaloian

Pello Alberdi margolari elgetarrak bere lanen erakusketa zabalduko du etzi, eguaztena, Espaloia antzokian. Hura bisitatzeko aukera izango da ekainaren 6ra bitartean. Hiri-paisaietatik abiatuta, irudimen handiko konposizioak egiten ditu Alberdik.

Peio Añorgaren ipuin kontaketa saioa eguenean Eskoriatzan

Peio Añorga ipuin kontalaria hil bukaeran zen emanaldia egitekoa Eskoriatzan, baina hitzordua egunez aldatu behar izan dute. Horrenbestez, hilaren 19an, eguena, izango da ipuin kontakizuna herriko liburutegian, 18:00etan. Umeei zuzendutako saioa da.

Eskoriatzako umeendako ezaguna da Peio Añorga, herrian sarri egiten dituelako emanaldiak. Izatez oiartzuarra da, eta hantxe bizi da gaur egun ere. Euskal Herri osoan egiten duen ipuin kontalari lana idazle lanekin uztartzen du.

Hitzorduak

'UDAZKENA OÑATIKO BASOETAN', XABI REZABALEN ARGAZKIAK | Oñatiko paisaia ederren argazki erakusketa ipini du argazkilariak

Oñatiko hamalau argazki eder ikusteko aukera dugu ekaina arte, Xabi Rezabal oñatiarrak herriko Arkupe tabernan ipini duen erakusketan. Ikusteaz gain erosteko modua ere badago.

Ez da hau argazkilari oñatiarrak herrian ipintzen duen lehen erakusketa; aurretik, Madrilen inguruko argazkiak ipini zituen gaztelekuan –hiri hartan bizi zen denboraldi baten–, eta uda partean beste bat zabaltzeko asmotan dabil.

Gai aldetik, denetariko argazkiak ateratzen ditu Rezabalek, baina argazki-kazetaritza ikasitakoa da eta horixe da gehien gustatzen zaion arloa.

ZINEMA |

• *Entre copas* filma ikusteko aukera Arrasaten

Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean. Gaur, astelehena, ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *El penalti más largo del mundo* filma Oñatin

Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura-etxeko zinema aretoan, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *Imagining Argentina* filmaren emanaldia Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia kafe antzokian, 21:30ean.

• *El silencio del agua* filmaren emanaldia Arrasaten

Eguenean, hilak 24, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean, zineklub emanaldian. 4 euro da sarrera. Jatorrizko bertsioan emango dute azpitituluekin.

• *Asalto al distrito 13* filmaren emanaldia Elorrion

Gaur, astelehena, emango dute film hori Elorrioko Arriola aretoan, 20:00etan.

IKASTAROAK |

• Oñatiko KZGuneak hainbat ikastaro antolatu ditu

Datozen egunotan, honako ikastaroak emango dituzte: Outlook Express (hilak 20, egubakoitza) eta Interneteko oinarrizko ikastaroa (hilak 23, astelehena). Mikroenpresendako ikastaro bereziak ere badituzte: web orriak egitekoa (bihar, martitzena), web orria argitaratzekoa (etzi, eguaztena) eta web orria sustatzekoa (hilak 19, eguena). Argibideetarako, deitu 943 71 83 20 zenbakira.

• Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa Bergaran

Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa emango du Beart elkarteak uztailean. Izenematea zabalik dago honako telefonoetara deituta: 635 71 53 82 (Mayra), 665 70 31 75 (Oihana) eta 635 71 32 69 (Maite).

ERAKUSKETAK |

• Juan Mª del Pozo margolariaren erakusketa

Juan Mª del Pozo margolariaren erakusketa dago Arrasateko Harresi aretoan. Bisita ordutegia honakoa da: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, horrez gain, 12:00-14:00.

• Bergara Hiria argazki lehiaketako lanen erakusketa

Bergara Hiria argazki lehiaketako lanen erakusketa dago herri horretako kultura-etxean hilaren 22ra arte, Pol-Pol argazki taldearen eskutik. Bisita ordutegia honakoa da: astegunetan 18:00-21:00 eta zapatutan 12:00-14:00.

LEHIAKETAK |

• San Juan jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa

Lehiaketan esku hartzeko azken egunak dituzue, hilaren 20a da eta mugaeguna. Debagoienean bizi edo erroldatuta dagoen edozeinek parte har dezake, 28 x 21 cm-ko irudiekin. Derrigorrezko testua honakoa da: *2005 San Juan jaiak Arrasate.* 750 euroko saria emango dute. Lanak Arrasateko udaletxera bidali behar dira.

• Eskoriatzako jaietako irudi lehiaketa deitu dute

San Pedro jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udal Kultura Sailak. Edozeinek parte har dezake 21 x 10 zentimetroko kartelekin. Derrigorreko testua honakoa da: *2005eko San Pedro jaiak Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, uztailak 1.* Lanak udaletxean edo kultura-etxean entregatu behar dira, eta egubakoitza, maiatzak 20, duzue horretarako azken eguna. Irabazleari 300 euro emango dizkiote.

• 15. Portugalete Uri Urena ipuin lehiaketa, zabalik

16-30 urte bitarteko edozeinek parte har dezake. Gaia librea da. Lanak Portugaleteko udaletxera bidali behar dira irailaren 26ra bitartean. 1.700, 1.000 eta 550 euroko sariak emango dituzte.

Zorion agurrak

ARRASATE
Ander Gomez
Maiatzaren 17an, 5 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.

ARRASATE
Jon Anduaga
Maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak! Familia osoaren partetik.

BERGARA
Paul Azkargorta
Apirilaren 30ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Denon partez.

BERGARA
Uxue Agirre
Maiatzaren 8an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

ARETXABALETA
Oier Aizpurua
Hilaren 12an, 9 urte. Berandu bada ere, zorionak! Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Ander Asula
Maiatzaren 14an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

BERGARA
Lierni Azkarate
Maiatzaren 15ean, 2 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Naiara.

BERGARA
Saioa Garin
Maiatzaren 16an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.

ARETXABALETA
Josu Antxia
Maiatzaren 13an. Zenbat egin dituzula? Zorionak *Porru*! Lagunak.

ARETXABALETA
Nerea Elortza
Maiatzaren 13an. Zorionak andereño Nerea! Ikasleak eta lagunak.

ARETXABALETA
Ander Antxia
Maiatzaren 17an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoak eta lagunak.

ARETXABALETA
Ander Uribarren
Maiatzaren 20an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat. Familia guztiak.

ELGETA
Andoni Errasti
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ELGETA
Nikol Baro
Maiatzaren 12an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

ELGETA
Olatz Irazabal
Maiatzaren 15ean, urtebete. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

ELGETA
Izar Irazabal
Maiatzaren 20an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.

OÑATI
Izaro Altuna
Maiatzaren 19an 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Familiakoak.

OÑATI
Inma Martin
Maiatzaren 15ean 6 urte. Zorionak bat denon partez.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

Jaiotakoak

Ugaitz Zubia Iturbe
Arrasate • 3,760 Kg.
Maiatzak 9. Gurasoak: Rober eta Agurtzane (Arrasate). Argazkian: Ugaitz amaren besoetan.

Mikel Ceciaga Oregi
Bergara • 3,320 Kg.
Maiatzak 9. Gurasoak: Roman eta Amaia (Bergara). Argazkian: Mikel bapo lo bere kumatxoan.

Malen Ugarte Salaberri
Oñati • 3,280 Kg.
Maiatzak 11. Gurasoak: Josu eta Izar (Arrasate). Argazkian: Malen Begoña amamarekin.

Maren Egizabal Astraburuaga
Arrasate • 2,760 Kg.
Maiatzak 11. Gurasoak: Luis Migel eta Mª Jose (Arrasate). Argazkian: Maren lo amaren besoetan.

Gaizka Ozaeta Gomez
Arrasate • 3,510 Kg.
Maiatzak 12. Gurasoak: Fernando eta Lourdes (Azpeitia). Argazkian: Gaizka amaren besoetan.

Cristian Quintas Gomez
Eskoriatza • 3,385 Kg.
Maiatzak 13. Gurasoak: Fran eta Esti (Eskoriatza). Argazkian: Cristian gurasoekin.

Emma Gandarias Garcia
Arrasate • 2,970 Kg.
Maiatzak 13. Gurasoak: Jose Luis (Logroño) eta Alicia (Soria). Argazkian: Emma lo.

Hildakoak

Miren Karmele Velez de Mendizabal Llona
Arrasaten, maiatzaren 14an. 88 urte.

Dolores Mugarza Mekolalde
Oñatin, maiatzaren 14an. 91 urte.

ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN
82 euro
943 76 92 71

sms mezuak

- Ez dago ezer eginik. Edo bai? Aupa Osasuna!
- Ez zuri-gorri ezta txuri-urdin ere. Gora gorritxoak! Kopa zuena da mutilak!
- Ei, autobusean izena eman behar dugu! Zapatuan Donostiara!
- Eguakitzian Bergan ibili giñan! Nola zuen izena txosnetan nirekin dantzan aritu zenak? Erantzun SMSa, mesedez!
- Jontxu, ondo ibili giñan barraketan ezta? Gaur merkeago dae. Jungo ga?
- Txoritxo batek esana da: bihar 5etan *arindondinen parian.* Iker eta Jon, zuendako mezua da!
- Osasuna, aupa osasuna!
- Miren, zorionak eta muxu haundi-haundixa zure koadrillian izenian!
- Olatz, lasai. Zure mutila pixka bat bakarrik gustatzen jat!
- Ez esan ez notsunik esan. Pedro kriston mutila da eta kitxo!
- Maria, gaur txosnetan 10etan. Ekarri zure anaia eta bere laguna. A zelako mutil puskak. Gu osorik agertuko gara.

Baita SMS bidez ere!

Bidali mezua:
gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.

Hurrengo **Asteleheneko Goienkaria**-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

nolako ikasketak halako lana

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa

943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOAko Campusa

- Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

ESKORIATZAko Campusa

943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu

MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Gaizka Barandiaran zenaren gainean
Domekan, Gaizka Barandiarani omenaldia egin zioten Donostian. Arrasateko abade hark euskal kulturaren aldeko lan ugari argitaratu zituen, besteak beste, dantzaren gainekoak. Josemari Velez de Mendizabalek biografia idatzi zuen, eta 10:10ean elkarrizketatuko dute.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:15

Autoenplegua bultzatzeko laguntzak
Oñatiko Udalak herrian autoenplegua bultzatzeko plangintza onartu du. Udaleko Enplegu teknikari Jesus Mari Ugarteri elkarrizketa egingo diote, interesatuek zer bide egin behar duten eta zer laguntza eskaintzen duten jakiteko.

Loiola Irratia
FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Azkoitiko Maxi Eroskiren gainean, dendariekin

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 11:20

Judas Arrieta 'manga' zaletuari elkarrizketa

Radio Euskadi
FM 98.2

'Boulevar' | 10:30

Txaro Arteagari elkarrizketa egingo diote

Gaur telebistan

GOITB



'Harmailatik' kirol saioa GOITBn
21:30
Gura beste kirol hitzordu izan dira asteburuan, eta horien berri izango duzue Julen Iriondoren eskutik.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Sherezade*. (Egubakoitzekoak emandakoaren errepikapena).
14:10 Marrazki bizidunak: *Lazkao Txiki*.
14:15 Berriak aurrerapena.
14:30 Ilunpean.
15:00 Eguzki lore.
15:30 Berriak aurrerapena.
15:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. Hainbat musika estilo.
19:30 Emisio hasiera.
19:35 Gaurkoak. Albisteak.
19:45 Klip@.
20:00 Berriak. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak.
21:00 Baneki. Mikel Aranburuk ibarreko gazteendako egiten duen saioa.
21:30 Harmailatik. Kiroletan asteburuak eman duena Julen Iriondo kazetariaren eskutik.
22:00 Berriak.
22:30 Auñamendietan.
23:00 Harmailatik (Kirol saioaren errepikapena).
23:30 Gaurkoak.
23:45 Emisioaren amaiera.

ETB 1

Khalaf eta June lanagatik haserretzen dira
21:40
Horrekin batera, Zuri ospitalean geratzen da Argiren berri jasotzeko esperantzarekin. *Goenkalen*, gaur.

06:30 Benta berri.
06:55 Tik Tak circus.
07:25 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia, Kong eta Montana.*
09:20 E-Klipse@.
09:45 Elkartasunaren bideak.
10:10 Bidaide.
11:05 National Gegrophic.
11:55 Bertatik Bertara.
12:25 Hitzetik Hortzera.
13:05 Barne barnetik.
13:35 Betizu.
14:00 Gaur Egun.
14:40 Postdata.
14:45 Eguraldia.
14:50 Hasiberriak. *Isilpean gordetzeak.*
15:15 Gag gag
15:30 Italiako Giroa 2005.
17:35 Eklipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu. *Beekerekeak, Euli Ipuinak, Garfield eta lagunak, Zuzen, Doraemon*, eta *Shin Chan.*
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur Egun.
21:05 Bertatik Bertara.
21:40 Goenkale.
22:20 Sorginen laratza.
23:50 Eguna iruditan.
23:55 Postdata.
00:00 Sautrela

ETB 2

Erronka berriak 'Operación Pirineos' saioan
21:55
Kirola egitea atsegin ez duten sei lagun eramango dituzte Pirinioetara, Juanito Oiartzabalen gidaritzapean.

07:15 Del país de los vascos. *Curanderos.*
07:40 Rutas de solidaridad. *Palestina. La memoria inaccesible.*
08:05 Embrujada.
09:00 Forum.
09:30 El Punto.
10:05 Matrimonio con hijos.
11:00 Stargate. *Heroes.* (Parte 1)
12:00 La cocina de Pedro Subijana.
12:15 Se ha escrito un crimen.
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Pásalo.
18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Operación Pirineos.
23:50 El día en imágenes.
23:55 Documental.
01:00 La zona muerta.
02:40 Esta es mi gente.
03:15 Date el bote.
04:10 Pásalo. Adela Gonzalezen eta Iñaki Lopezen eskutik.
05:55 Forum.

TVE 1

Fernandorekin ezkondu guran, baina...
22:00
Badirudi, azkenean, Fernando eta Ana ezkondu egingo direla. Nola ez, azken momentuan arazoak sortzen dira.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.
10:00 Saber vivir.
11:05 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de primavera. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amor real.
16:55 Obsesión.
17:50 El enemigo en casa.
18:35 Cuéntame cómo pasó. *Paris, ioh, la la!*
20:00 Gente.
21:00 Telediario 2.
21:55 El tiempo.
22:00 Ana y los siete. *¿Y ahora qué?*. Anak eta Fernandok ospakizuna egin gura dute.
23:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin.
01:30 Telediario 3.
02:00 Los vigilantes de la playa.
03:30 Canal 24 horas.

La 2

'En portada' saioan, Txile hurbilagotik
22:45
Azken hamar urteotan, hegoaldeko lurraldeen artean, Txile eredugarria izan da izan duen garapenagatik.

06:30 Euronews.
07:30 Los Lunnis. *Los minimonstruos, Alf, Aventuras en pañales* eta *Tweenies.*
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 Tv educativa: la aventura del saber.
11:00 La botica de la abuela.
11:15 España.es
13:00 Los Lunnis. *Digimon, Arthur,* eta *La vaca Connie.*
15:15 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.
15:45 Ciclismo. Vuelta a Cataluña.
16:55 Frontera Límite.
17:30 Los Lunnis.
19:15 Padres en apuros.
19:30 Revista a su salud.
20:00 Informativo territorial.
20:30 Previo UEFA Champions League.
21:00 Vivir con Mr. Cooper.
21:30 Miradas 2.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
22:00 La 2 Noticias.
22:40 El Tiempo.
22:45 En portada. *Chile, el progreso prudente.*
23:30 Estravagario.
00:30 Metropolis.
01:00 Radio3.
01:30 A ciencia cierta.

Antena 3

Homer, sexu-jazarpenagatik salatua
14:00
Umeak zaintzen dituen emakume bati sexu-jazarpena egin diolakoan, Komunikabideak Homerren kontra.

06:00 Las noticias de la mañana.
09:00 Ruedo Ibérico.
10:00 En buenas manos.
10:45 Cada día.
14:00 Los Simpson. *Lisa sobre hielo*, eta *Homer, Homer, malo.*
15:00 Noticias 1.
15:45 La buena onda de la tarde. Alicia Senovillarekin.
18:00 Números locos.
19:00 El diario de Patricia.
20:15 Pasapalabra. Gonbidatuak: Nuria Fergó, Jacqueline de la Vega, Juan Carlos Rivero eta Goyo Gonzalez.
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliculón. *Stars War Episodio II: El ataque de los clones.* Zuzendaria: George Lucas. 2002. Antzezleak: Ewan Mc Gregor, Natalie Portman, Hayden Christensen. Nabo planeta inbaditu zutenetik hamar urte igaro dira, eta dagoeneko, Anakin Skywalker Padawan ikasle aurreratua da. Jedien eskolakoa, eta Obi-Wan Kenobi maisuaren zaindaritzapean dagoena.
01:00 7 dias, 7 noches. Teresa Viejorekin.
02:30 Noticias 3.
02:50 Televenta.
05:00 Saioen errepikapenak.

Tele 5

Enpresaburu bat, eta bere andrea, hilda
22:00
C.S.I saioan, sekulako babes neurriak dituen etxe bateko jabeak tiroz hil dituzte: enpresaburua eta haren andrea.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesekin.
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrorekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 La casa de tu vida. Laburpena.
17:00 A tu lado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin.
19:30 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
21:15 Pecado original.
22:00 C.S.I. Las Vegas. *Levantarse temprano.*
23:00 CSI Miami. *Hermanos de sangre.*
00:00 Crónicas Marcianas.
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.
02:45 Madrugada de cine. *Managua.*
04:30 Infocom.

Astean GOITBn

Astelehena, 16

'Baneki' | 21:00

Gaurko eta egueneko saioarekin, lehen fasea
Baneki gazteen saioan 24 taldek hartu dute esku, eta gaur eta egunean egingo dituzte hurrengo fasera sailkatzeko azken saioak. 12 taldek egingo dute aurrera.

Martitzena, 17

'Jaiak 2005' | 21:00, 23:00

Pentekoste jaietako saio berezia GOITBn
Bergarako jaietako saio berezia egingo dute martitzenean. Eta jaien laburpenaz gain, Euskadiko Dantza Sueltoko Txapelketari tarte berezia eskainiko dio ibarreko telebistak.

Eguaztena, 18



'Auñamendietan' | 21:00, 22:30

Tuc de Salana-tik esango du agur saio honek
Tuc de Salana (2.482metro) izeneko mendian izango dira oraingoan Pello Cabestany eta taldekideak. Kataluniako Pirinioetan dagoen Val d'Aranen egingo dute azken kapitulua.

Eguena, 19

'Patrulla 03' | 13:50, 20:30

Patrulla 03 saioaren azken kapituluak
Eguenean, eguerdian eta ilunkeran gozatu ahal izango dute etxeko txikienek GOITBko marrazki bizidunekin. Gainera, Patrulla 03ko lagunen azken kapituluak izango dira.

Egubakoitza, 20

'Ilunpean' | 21:00, 22:30

Antton Karrera legebiltzarkidea
Egubakoitzean, Ezker Batua-Berdeak taldeko kide eta legebiltzarkidea elkarrizketatuko du Oihana Elortzak. Besteak beste, egoera politikoa aztertuko dute.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

ASPEren
ESKAINTZA BEREZIA
Asteleheneko Goienkariko irakurleendako

ASPEk Asteleheneko Goienkariako harpidedun eta irakurleendako eskaintza berezia prestatu du.
Orain, ASPEko materiala esku-eskura izango duzu: %30eko beherapena eta, gainera, oparia pertsonalizatzeko aukera!

PILOTA
- Aspeko pilotari batek sinatua.
- Narruzkoa.

30€* pilota bat

KAMISETA
- Zure izenarekin edo ASPEko pilotari batenarekin.

40 €*

PRAKAK
35 €*

* Produktuen prezioetan deskontua aplikatuta dago.

aspepelota.com

ASPEko pilotariak:
Apeztegia, Arizmendi, Arroyoll, Auxkin, Baleztena, Barriola, Berna, Berraondo, Capellan, Chafee, Del Rey, Elkoro, Etxaniz, Eugi, Eulate, Galarza VI, Galarza V, Gonzalez, Goñi III, Lasa III, Laskurain, Mtez de Irujo, Nalda III, Pascual, Titin III, Urberuaga, Xala, Zubieta.

ASPEko produktuak
%30eko deskontuarekin eta pertsonalizatuta
lortu ahal izango dituzu.

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:
Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

043 zozketa: maiatzaren 16a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!

WERLISA argazki kamera digitala
- Josu Balanzategi (Arrasate)

EIBAR – SPORTING futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Pedro Errasti (Arrasate)
- Nerea Cuesta (Bergara)
- Julian Oianguren (Eskoriatza)
- Arantzazu Izarzelaia (Arrasate)
- Santi Berezibar (Arrasate)
- Juan M. Alberdi (Bergara)

Maiatzak 22an, Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den ROGELIO BOTANZ eta ALFONSO SASTREREN ikuskizunerako bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Agurne Unamuno (Bergara)
- Iñaki Altube (Oñati)

044 zozketarako sariak

- **EIBAR-MURCIA** futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- **ISTILU** etxeko kamiseta bat
- **'NAEROBITARRA'** mundua ezagutzeko jolasa.

ESKAERA-KUPOIA ASPEKO MATERIALA %30EKO DESKONTUAREKIN ETA PERTSONALIZATUTA ESKURATZEKO

Izen-abizenak: .....
Herria: .....
Tel.: .....
Erosketa modua:
☐ **Txartela:** .....
☐ **K/K:** .....

- **KAMISETA / Zenbat:** .....
☐ **Urdina** ☐**Gorria**
☐ **M** ☐**L** ☐**XL**
☐ **Pilotariaren izena EDO**
☐ **Norberarena:**
Izena: .....
(gehienez 10 karaktere maiuskulaz)

- **PRAKAK / Zenbat:** .....
☐ **M** ☐ **L** ☐ **XL**

- **PILOTA / Zenbat:** .....
Zein pilotariaren sinadura:
.....

Bete kupoi hau eta bidali honako helbira:
ASPE
San Juan kalea 5, 1-eskuina
20600 Eibar

Informazioa: 943 82 04 06

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE

Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
maiatzaren
16a

Goizean: Lainotuta
Arratsaldean: Euria

Hamarrekoa

XANTI ANTERO I MAGOA

"Gaupasa egin eta goizean goiz jo nion etxeko atea lagun bati magia liburua hartzeko"

Oihana Elorza

1. Helduak ala umeak harritzen dira gehiago magiarekin? Helduak, duda barik. Logikak eta esperientziak gauza asko erakutsi diete eta asko harritzen dira halakoak ikustean. Adibidez, elefante bat agertuko dela esaten badut eta horrela gertatzen bada, heldua txundituta gelditukо da, baina umeak ez dio aparteko garrantzirik emango; txalo ere ez du egingo ziur asko.

2. Baina nork sinisten du gehiago magian? Umeek. Oso kritikoak dira eta ez dute pertsona bat ikusten, mago bat baizik.

3. Hitz magikoak behar ditu benetako mago batek? Hasieran ez nituen erabiltzen. Jose Mari Carrere ipuin kontalariak esan zidan Iparraldeko agure batek esaera magiko bat zekiela, bere amonak erakutsitakoa. Lehen bi hitzekin gogoratzen zen bakarrik eta horiexek dira: *artxila murtxila*.

4. Ze indar dute *artxila murtxila* hitzek? Umeendako magia ikuskizunetan erabiltzen ditut eta Euskal Herri osoan barrena zabaldu ditut hitzok.

5. Non txunditu zintuen zu magiak? Ekaitza zen gau batean ile zuria zuen gizon altu bat sartu zen gurasoen tabernara eta aitari karta joko bat eskatu zion niri magia truku bat egiteko. Karta bat sinatu nuen eta tabernako beste puntan zegoen alkandora poltsikoan agertu zen.

6. Eta noiz hasi zinen zu magia egiten? Koadrilako afari batean, sagardotegi batean. Han trikimailuak egiten hasi nintzen eta jende asko bildu zen gure mahaiaren inguruan. Gizon batek esan zidan berak bazuela magia liburu zahar bat. Gaupasa egin eta goizeko bederatzietan ate joka nintzen bere etxean. Oraindik badut liburu hori.

7. Nor desagertaraziko zenuke? Pentsatzen dutenak beste batzuk baino askoz hobeak direla.

8. Eta non agertuaraziko zenuke zeure burua? Beste filosofia bat duen mundu batean. Justizia gehiago duen mundu batean.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Betiko lagunak oroitzen dira Xanti duela izena, baina jende gehienak Txan deitzen dio zuzenean. Denetarik egin du, baita tabernari lanak ere gurasoek Donostiako Antiguo auzoan zuten tabernan. Hango bezeroak Xanti txikia liluratzen saiatzen ziren, baina *brandy* bat eskatu zuen gizon misteriotsuak egindako magiak harritu zuen benetan. Probatzea erabaki zuen.

9. Zer moduzko ikaslea da Harry Potter? Mago ona izango da nagusitan? Umeek ez dute berdin ikusten Harry Potterren eta Txan magoaren magia. Bat telebistaren bestaldean ikusten dute eta bestea, berriz, zuzenean, eta gehiago harritzen ditu horrek.

10. Nabaritu duzue Potterren arrakasta? Asko. Indartu egin du magiaren presentzia.

Biharamuna

Marijo Deogracias

Berriz ere hemen

Aspaldiko lagunak ikustea beti da gustagarria. Eta horixe egiteko aukera izan dut asteburuan; **San Isidro** feriara gerturatu eta aspaldiko lagun eta ezagunekin egoteko tartea hartu. "Aspaldiko! Gutxitan etortzen zara zu hemendik!" esan zidan **Arrieta**k eta "Hartara denok kasu egiten didazue; astero etorriz gero, "aspaldiko"beharrean "berriz hemen!" esango zenidaten eta, jakina, kasu ere erdia". Gauza bera gertatu zait Bergarako jaietan ere. Jakina, Bergarara lanera etorri nintzen, baina hainbeste jende ibili denez batera eta bestera, domeka eguerdian pintxoak jaten topo egin nuen aspaldiko lagunekin. Gauza gutxi esateko aukera izan zuten **Maider**rek eta **Mireia**k: ahots barik ziren, egubakoitzean egindako parrandaren arrastoa. Zapatuan ere asko izan ziren Bergara aldean ibili zirenak; Elgetako magia ikuskizuna eta Arrasateko **Zigorrola**ko jaiak ere aukeran zituzten arren. Baina **Pazkoek** gonbite zabala egiten dute.

Hain zabala ze, domeka goizaldean, eta inoren gonbidapen barik, bestelako ikuskizuna antolatu zen **San Blas** auzoan. Gaur legebiltzarreko mahaia osatzeko eguna izanik, bozgorailua behar batzuek eta domekan nahiko garrasi egin zuten Bergaran, Beasainen, Soraluzen eta Elgoibarren.

Beste batzuk ere oihukatu beharko lukete, baina euskaraz. Hartara, **Elgeta**n jarri duten kartel erraldoia guztiok ulertzeko moduan egongo litzateke.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70